# 2022 UDAL AURREKONTUAK

Honako informazio txosten honek zenbait legek Nafarroako Toki Ogasunetan dituzten ondorioak jasotzen ditu. Honakoak dira aipatu lege horiek: Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/21 Legea; Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 18/21 Foru Legea; Zerga Neurriei buruzko 19/21 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeari buruzko 20/21 Foru Legea (Gainbalioa); eta honako hiru lege-proiektuak: Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikulua aldatzeko foru legearen aurreproiektua, Transferentzia Arrunten Funtsa arautuko duen foru legearen aurreproiektua eta Toki Inbertsioen Plana arautzen duenekoa. Era berean, beste xedapen batzuk ere kontuan hartu dira; hala nola, aurrekontuen egonkortasunaren helburuekin lotutako erabakiak eta bestelako neurriak.

## 1. PROZEDURAZKO ALDERDIAK

### 1.1 AURREKONTUEI, KONTABILITATEARI ETA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ekitaldiaren hasieran aurrekontu berriak indarrean ez badaude, automatikoki aurreko aurrekontuak luzatutzat joko dira, dagokien sailkapenarekin batera. Aurrekontuak luzatzeko ebazpena Toki Administrazioaren departamentuari igorri beharko zaio luzapena onetsi eta 15 eguneko epean eta lehendakariak edota Osoko bilkurak ebazpenari goranzko doikuntzak egin ahalko dizkio. Errepikatzen diren gastuak soilik luzatu ahalko dira, hots, ekitaldian amaitu behar ez direnak. Oro har, inbertsio-gastuak ezin dira luzatu, baina aurrekontu-kredituak aztertu behar dira, benetan luzatzen ahal direnak zeintzuk diren zehazteko. Gastu ez-errepikakorrak ezabatzen badira, aurrekontuan sartutako finantziazioa ezabatu beharko da. Aurrekontu berria onetsi ondoren, bertan aurrekontu luzatuaren testuinguruan egindako eragiketak sartu beharko dira.

Ekitaldi honetan aurrekontu-egonkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak 2021eko likidazioari eta 2022ko aurrekontuari aplikatzen ez bazaizkio ere, espedienteek aurrekontu-egonkortasunaren mugaren kalkulua jaso behar dute. Ezin da gastu-arauaren analisia egin ez dagoelako erreferentziazko tasarik, baina komeni da gastu konputagarria kalkulaturik edukitzea murrizketak berriro aktibatzen direnean aplikatu ahal izateko. Zorraren mugak indarrean jarraitzen du.

Toki entitatearen eta bertako erakunde autonomoen likidazioa udalbatzako lehendakariak egin behar du **martxoaren 31 baino lehen.** Eta Toki Administrazioko Departamentuari igorri behar zaio 15 egun baliodunеko epean. Halaber, **Kontu Orokorra apirilaren 30a baino lehen eratu behar da** ekainaren 1a baino lehen Kontuen Batzorde Bereziari bidaltzeko (Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 242.1. artikulua, 34. atala). Osoko bilkurak onartutako Kontu Orokorra Nafarroako Gobernuari bidaliko zaio, onartu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan.

**2022an zorpetze-eragiketak hitzartzea** aurreikusten duten entitateek, araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte (ikus finantza-pasiboen atala), baimena eskatu beharko diote Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuari, baldin eta zor biziak, hitzartuko denak barne, aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten %75 gainditzen badu. Baimena aurrezki garbiaren eta finantza-iraunkortasunaren mugak betetzearen arabera emango da, **2021eko aurrekontuen likidazioa** oinarritzat harturik. Beraz, baimena eskatzeko unean betekizun horien erakusle den dokumentua aurkeztu beharko da, baita araudian ezarritako epemuga baino lehen ere.

### 1.2 AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KUDEAKETAN ALDAKETAK (GOGORARAZPENA)

#### 1.2.1 GASTU ESPEDIENTEAK AURRETIAZ IZAPIDETZEA

22/20 Foru Legeak (25. atalean) gastu espedienteak aurretiaz izapidetzeko aukera ematen du. Horren arabera, entitateek zilegi izango dute gastu espedienteen tramitazioari hasiera ematea kasuko aurrekontu kreditua izan aurretik, dela ekitaldi berean, dela gastu horien egozpena eginen zaion aurrekontuari dagokionaren aurreko ekitaldian. Espedientearen hasierari nahitaez erantsi beharko zaio kontu-hartzailetzaren txosten bat, zeinean berariaz jasoko baita gastua garaiz aurrekoa dela eta lotuta dagoela kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etengarriari. Dagokion espedientearen izapideetan berariaz ohartarazi beharko da baldintza hori, hau da, kontratazio-izapideetan, dirulaguntzen deialdietan edo bestelakoetan.

#### 1.2.2 AURREKONTU ALDAKETEN FINANTZIAZIO ITURRIA HANDITZEA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen dituen finantziazio iturriez gain, aurreikuspenen arabera **ekitaldian jasoko diren diru-sarrera berriekin** finantzatzen ahalko dira aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak (22/20 Foru Legea, 26. atala, 213.1. artikuluaren erredakzio berria), diru-sarrera horiek gauzatu ez badira ere, baina etorkizunean bilduko direla jasota badago.

22/20 Foru Legeak (27. eta 31. atalek) 4. apartatu berri bat eransten dio 213. artikuluari eta 6. apartatu berri bat 219 artikuluari. Horien arabera, salbuespen gisa, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onesten den unera arte **aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin** finantzatzen ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak bai eta kreditu gehikuntzak ere, azken hauek aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte iragaten den denbora epean sartzen ahalko direlarik. Nahitaezkoa izango da kontu-hartzailetzak txostena egitea finantzaketa benetan erabilgarri dagoen egiaztatzeko.

### 1.2.3 AURREKONTUEN INGURUKO ALDAKETA BERRIAK INDARREAN JARTZEA

22/20 Foru Legeak (28. eta 29. atalek) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 214.2 eta 216 artikuluak aldatzen ditu eta ezartzen du, aurrekontuaren exekuzio oinarrietan hala ezarrita dagoenean, aparteko kredituaren, kreditu-gehigarriaren edo kreditu--transferentzien aurrekontu-aldaketen hasierako erabakia jendaurrean jarriko dela hamabost egunez. Epe hori iraganik, eta erreklamazio edo alegaziorik egin ez bada, hasierako onespen erabakia behin betikoa dela ulertuko da, eta jendaurrean egoteko epea iragan eta gero hartuko du indarra. Exekuzio oinarrietan berariazko aurreikuspenik ez badago, tramitazioak aurrekontuen kasuan bete beharrekoak diren izapide eta betebehar berberak bete beharko ditu. Prozedura hori ez da aplikatuko aurrekontua onesteko.

### 1.2.4 HONDAMENDI PUBLIKOAREN KASUETAN ERE KREDITU-TRANSFERENTZIEN AURREKONTU-ALDAKETAK IZAPIDETU AHAL IZATEA

22/20 Foru Legeak (30. atalak) 3. apartatua erantsi dio Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 217 artikuluari. Horren arabera, kreditu-transferentzien aurrekontu-aldaketak ahalbidetzen ditu hondamendi publikoko edo antzeko kasuetan. Modu horretan, gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak onesteko xedearekin toki entitateek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoko edo antzeko kasuetan, betearazleak izango dira berehala, ezertan galarazi gabe haien kontra erreklamazioak aurkezteko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi egun naturaleko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsitzat hartuko baitira erreklamazioaren egileari ebazpenik ez bazaio epe horretan jakinarazten.

### 1.2.5 NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAN APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNAREN ARLOAN

Hemendik aurrera, 22/20 Foru Legearen onespenarekin (35. eta 36. atalak) bi artikulu berri gehitzen zaizkio Toki Ogasunei buruzko Foru Legeari: 242bis eta 242ter. Horietan, Nafarroako toki ogasunetan aurrekontuaren egonkortasuna aplikatzeari buruzko zehaztasunak arautzen dira.

Honela laburbildu daitezke arautzen diren berezitasunak:

- Gastu arauan ez da gastu konputagarritzat joko hirigintza kudeaketatik edo bestelakoetatik datozen funts finalisten bidez finantzatutako gastu-zatia.
- Aurrekontu egonkortasunaren helburuaren ez-betetzea gertatzen bada gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako edo gastu proiektuak exekutatu direlako urteko finantzaketa-desbideratze negatiboekin, ez da beharrezkoa izango Ekonomia eta Finantza Plan bat egitea. Horren ordez, kontu-hartzailetzako lanak betetzen dituen organoak osoko bilkurari komunikazio bat igorri beharko dio.
- Gastu araua betetzen ez duten entitateen kasuan, Ekonomia eta Finantza plana egin ordez, kontu-hartzailetzak komunikazio bat igortzen ahalko dio osoko bilkurari, baldin eta ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa egiten bada gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbi positiboa izanda, eta betetzen badira hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak.

## 1.3 BARNE KONTROL MUGATUKO ARAUBIDEAREN ERREGULAZIOA

22/20 Foru Legeak (37. eta 38. atalak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 248.2 artikulua aldatzen du edozein toki entitatek, ez bakarrik, orain arte bezala, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalek, aukera izan dezan ezartzeko aldez aurreko kontu-hartze mugatuko eredua. Halaber, eredu horren erregelamendu bidezko garapena aurreikusten du, araubide erkidean dagoenaren baliokide den erregulazio bat onartu ahal izateko, Nafarroako toki entitateei aplikatzen ez zaiena. Oraingoz ordea, ez da aldaketa hori gauzatu eta Ogasunei buruzko Foru Legearen 242 artikulutik 252ra aurreikusten dena aplikatu behar da.

## 1.4 TOKIKO OGASUNARI ZOR ZAIZKION KOPURUEI APLIKATU BEHARREKO INTERES-TASA

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 50.2.c artikuluak ezartzen duen **berandutza interes-tasa urtean %3,75 da,** Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen berrogeita seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera. Gainontzeko zorren kasuan, **diruaren legezko interesa** aplikatuko da; xedapen berberaren arabera, **urtean %3** izango dena. Honakoak dira urtez urte aplikatu beharreko interes-tasak:

| EKITALDIA | LEGEZKO INTERESA | BERANDUTZA-INTERESA |
|---|---|---|
| 2022 | %3 | %3,75 |
| 2021 | %3 | %3,75 |
| 2020 | %3 | %3,75 |
| 2019 | %3 | %3,75 |
| 2018 | %3 | %3,75 |
| 2017 | %3 | %3,75 |
| 2016 | %3 | %3,75 |
| 2015 | %3,5 | %4,375 |
| 2014 | %4 | %5 |
| 2013 | %4 | %5 |
| 2012 | %4 | %5 |
| 2011 | %4 | %5 |
| 2010 | %4 | %5 |

## 1.5 TOKI TRIBUTUETAN SALBUESPENAK ETA HOBARIAK KONPENTSATZEKO PROZEDURA

22/20 Foru Legeak Ekonomia Jardueren-gaineko Zergaren (EJZren) salbuespen orokorra ezarri zuen milioi bat eurotik beherako fakturazioa duten jarduera ekonomikoetarako. Neurri hori dela eta, toki entitateei konpentsazio bat emango zaie Toki Ogasunei buruzko Funtsean zuzkidura espezifiko baten bidez (ikusi horri dagokion atala), eta aurreko 2020ko ekitaldian zerga honengatik likidatu denaren arabera kalkulatuko da aipatu zuzkidura. Xehetasunak EJZri buruzko atalean jaso dira.

Gainerako kasuetarako, eta oro har, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 57. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Artikulu horrek ezartzen du Toki Ogasunei buruzko Foru Legeaz bestelako foru legeetan aitortzen diren toki tributuen salbuespen eta hobari fiskalak Toki Ogasunei konpentsatu beharko zaizkiela. Konpentsazioaren prozedura 325/98 Foru Dekretuak arautzen du (abenduaren 7ko 146. NAO). Dekretu horren arabera, zerga-onura ezartzen duen Legeak adierazten duen departamentuari egingo zaio

konpentsazio-eskaera, edo Lurraldearen Kohesiorako Departamentuari, departamentu eskudunik adierazten ez bada. Eskaera egutegiko urte bakoitzeko seihileko bakoitzaren amaieran aurkeztu beharko da eta, gehienez, hiru hilabeteko epearen barruan ebatzi. Epe hori igaro eta ez bada berariazko ebazpenik egon, ebazpena aldekoa dela ulertutzat joko da. Normalean, ekitaldiaren amaieran izapidetzen ditu Nafarroako Gobernuak itzulketak, partidaren aurrekontu-zuzkidura handitu ondoren.

### 1.6 KONTSUMO-PREZIOEN INDIZEA (2021)

Kanon eta prezioen eguneratze-indizeak aplikatzeko, KPIaren bilakaera-indizearen informazioa ikus daiteke jarraian.

| KPIaren ALDAKETA % | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
| NAFARROA | -1,2 | 0 | 1,8 | 0,6 | 1,3 | 1,3 | -0,6 | 6,6 |
| NAZIONALA | -1 | 0 | 1,6 | 1,1 | 1,2 | 0,8 | -0,5 | 6,5 |

## 2. TOKI TRIBUTUEI BURUZKO ARAUDIA

### 2.1 TRIBUTUEN KUDEAKETA

22/20 Foru Legeak (1. atalak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 13.5 artikulua aldatu zuen. Xedapen horren arabera, ordenantza fiskalek onetsi eta hurrengo ekitaldian hartuko dute indarra, salbu eta ordenantzetan bertan beste data bat ezartzen bada, argitaratzearekin baterakoa. Beraz, horrek ekitaldian zehar tasak ezarri ahal izatea ahalbidetzen du hurrengo ekitaldira itxoin beharrik izan gabe. Tasa horiek jarduera edo zerbitzu berriei badagozkie betiere.

Tributu-neurriei buruzko 21/2000 Foru Legeak zenbait alderditan hein batean aldatzen du Tributuei buruzko 13/2000 Foru Legea, abenduaren 14koa. Gogoan izan behar da aurreko ekitaldian izandako aldaketa, zeinaren bidez premiamendua baino lehenagoko errekarguak aplikatu ahal izateko zor osoa ordaindu behar den une horretan. Hala egiten ez bada, zorra osorik likidatzen den uneari dagokion errekargua aplikatuko da, aldez aurretik ordainketa partzialak egin badira ere.

Tributu-neurriei buruzko aipatu foru legeak, gainera, Tributuei buruzko Foru Legearen 116.4 artikulua aldatzen du zerga-zorren ordainketa geroratu eta zatikatzeko epe exekutiboaren aplikazioa arautuz. Honakoa da xedapenaren testua:

*“4. Borondatezko epean ordainketa geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera aurkeztuz gero, espediente horiek tramitatu bitartean ezin izanen da epe exekutiboa hasi.*

*Aipatutakoa gorabehera, aurreko paragrafoan adierazitako eskaerek eta eteteko eta gauzatan ordaintzeko eskaerek ez dute eragotziko epe exekutiboa hastea, baldin eta aldez aurretik ukatu bada, zerga-zor berari dagokionez, borondatezko aldian geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko, eteteko edo gauzatan ordaintzeko beste eskaera bat, eta ordainketa egiteko beste epe bat ireki bada halakorik egin gabe.*

*Epe exekutiboan, geroratze-, zatikatze- edo konpentsatze--eskaerak aurkeztea zilegi izanen da ondasun enbargatuak besterentzeko erabakia zergapekoari jakinarazten zaion arte. Eskaera horiek epe exekutiboa hasi ondoren aurkezteak ez du eteteko ondoriorik ekarriko, eta diru-bilketako organoak hasiera edo jarraipena eman beharko dio premiamendu prozedurari. Halere, ondasun enbargatuak besterentzeko jarduketak eten beharra egonen da eskaerari ezezkoa ematen dion ebazpena jakinarazi bitartean.*

*Zehapen baten kontra errekurtso edo erreklamazioa garaiz eta forman aurkezteak eragotzi eginen du epe exekutiboa hastea, harik eta zehapena administrazio bidean irmo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatzen den arte.*

*Konkurtso-deklarazioak ez du etenik eraginen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Konkurtso Legearen testu bateginaren arabera konkurtso-kalifikazioa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epean, horrek ezertan galarazi gabe epe exekutiboko jarduketak testu bategin horretan xedatutakoari jarraitzea”.*

Era berean, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2022an zehar eginiko eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak ezartzen dituena. Neurriak 2021erako ezarritakoen antzekoak dira eta 19/2021 Foru Legearen bosgarren artikuluko hamahirugarren apartatuan arautzen dira.

### 2.2 FORU OGASUNAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO

2019ko martxoan NUKFk eta Nafarroako Zerga Ogasunak hitzarmen bat izenpetu zuten zergei buruzko informazioa trukatzeko. Hitzarmen horri Nafarroako toki entitate guztiak atxikitzen ahal zaizkio. Hitzarmen horren helburuak, oinarrian, bi dira: alde batetik, zerga-arloan garrantzia duen informazioa trukatzea, bi administrazioentzat interesgarria izaten ahal dena, eta, bestetik, foru ogasunak toki-administrazioei zergak kudeatzen eta ikuskatzen laguntzeko zerbitzuak ematea. Bigarren zati hori Zerga Ogasunak bere erakunde instrumentalei egindako enkargu gisa kudeatu ahal izango da, eta toki entitateei jasanaraziko zaie zerbitzu horren kostua, enkarguak eta kostua onartu ondoren.

Hitzarmen horren esparruan eta aurreikuspenen arabera, 2022an beharrezko katastro-jarduketak egingo dira goi-tentsioko sareen tributazioa ezartzeko bai Lurralde Kontribuzioaren bitartez bai jabari publikoaren aprobetxamenduaren gaineko tasen bitartez.

### 2.3 KATASTROKO BALORAZIO TXOSTENAK

19/2021 Foru Legearen zazpigarren artikuluak aldatu egiten du Lurralde Aberastasunaren Erregistroari buruzko 12/2006 Foru Legearen 36.2 artikuluak ezartzen dituen balorazio txostenak egiteko xede duten Batzorde Mistoak eratzeko prozedura.

Adierazi behar da, 2022tik aurrera toki ogasunek transferentzia arrunten kontzeptuan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen Foru Legearen proiektuak eutsi egiten diola udal bakoitzak transferentzia arrunten kontzeptuan jaso beharreko zenbateko osoaren %10eko murrizketari, baldin eta udalak katastroko balorazio txostena eguneratuta ez badu edo hura bere udal-mugartean berrikusteko prozesua bost urteko epean hasi ez badu.

Aipatu denez, balorazio txostenaren azkeneko eguneratze-dataren arabera, goi-tentsioko sareak modu arinean sartzen ahal dira 2023tik aurrera Lurralde Kontribuzioa likidatu ahal izateko.

## 2.4 FUNDAZIOEN ZERGA-ARAUBIDEA EGUNERATZEA

19/2021 Foru Legeak seigarren artikuluan ezartzen duenaren arabera, fundazioek Nafarroako Fundazioei buruzko 13/2021 Foru Legeak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga-onurak aplikatuko bazaizkie. Halaber, onura horiek aplikatzeko prozedura ezartzen du.

## 2.5 LURRAREN GAINEKO KONTRIBUZIOA

4/2019 Foru Legeak Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu egin zuen Lurraren gaineko Kontribuzioaren gutxieneko tasa %0,25era igoz, egungo %0,10aren ordez. Xedapen hori indarrean jarriko da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4/19 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrak ezartzen duen Foru Legea onesten denean. Gutxieneko 0,25a baino gutxiagoko Lurraren Kontribuzioaren tasa indarrean duten entitateek orain hasi eta bost urteko epea izango dute tasa igotzeko ezarritako tartean kokatzeraino, hots, %0,25 eta %0,5 artean.

22/20 Foru Legeak (11. atalak) Lurraren gaineko Kontribuzioaren kuotaren %90erainoko aukerako hobaria ezarri zuen, kasuan kasuko etxebizitza ohiko bizilekua denean familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titularrak diren subjektu pasiboentzat. Toki entitateek hobari hori berdindu ahal izango dute kotizazio gabeko pentsioak dituzten zergadunekin, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutenekin. Hobaria ordenantza fiskalez arautuko da eta aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da balorazio txosten osoa onetsi zenetik edo azken berrikuspena egin zenetik, gehienez, bost urte igaro ez izana.

Xedapen horrek, halaber, ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota osoaren %50erainoko hobaria ezartzen du higiezinean eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri direnean. Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek ezin izango dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau. Hobaria ordenantza fiskalez arautuko da.

Hobariak, hitzez hitz, honela arautzen dira:

*Hamaika.–140. artikulua, 4. eta 5. apartatuak gehitzea.*

*"4. Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute zergaren kuotaren ehuneko 90erainoko hobari bat, kasuan kasuko etxebizitza ohiko bizilekua denean familia ugariaren, familia gurasobakarraren edo gurasobakartasun egoerako familiaren titularrak diren subjektu pasiboentzat.*

*Toki-entitateek, beren udal-autonomiaren barruan, hobari hori berdindu ahal izanen dute kotizazio gabeko pentsioak dituzten zergadunekin, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutenekin.*

*Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau, eta toki-entitate bakoitzak tarte desberdinak hartu ahal izanen ditu kontuan errentaren arabera, ehuneko 90eraino gehienez.*

*Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izanen da udalerriko balorazio txosten osoaren onespena edo azken berrikuspena aurreko bost urteko epean egina izatea, gehienez ere.*

*Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalez arautuko dira.*

*5. Ordenantza fiskalek arautzen ahalko dute ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota osoaren ehuneko 50erainoko hobaria, higiezinean eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri direnean.*

*Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau, eta toki-entitate bakoitzak tarte desberdinak hartu ahal izanen ditu kontuan errentaren arabera, ehuneko 90eraino gehienez.*

*Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak egotea.*

*Hobariaren gainerako alderdi substantiboak eta formalak ordenantza fiskalez arautuko dira".*

Bestalde, ondasun higiezinen kategoriak garatzerakoan, horien katastro-balioa zenbatesteko, luzeraren arabera baloratzen diren higiezinen tipologia barne hartu zen. Horrek energia-hornidurako goi-tentsioko sareak katastroan alta ematea ahalbidetzen du, Lurraldearen Kontribuzioaren zerga ordain dezaten. Prozedura hori toki entitateek Nafarroako Zerga Ogasunarekin zergen alorreko informazioa trukatzeko eta zergen kudeaketan elkarlan zerbitzua emateko sinatutako hitzarmenaren esparruan lantzen ari da.

Indarrean dauden balorazio txostenen antzinatasunaren arabera, energia-sareak katastroan sartzea berehalakoa izaten ahal da edo eguneratze prozesu zailagoa eskatzen ahal du. NUKF TRACASArekin elkarlanean ari da, batetik, eguneratze hori bultzatzeko eta higiezin mota horiek Lurraldearen Kontribuzioaren bitartez zergapetzeko eta, bestetik, balorazio zuzen bat edukitzeko oinarri izango dena sareek hartzen duten espazio fisikoagatik jabari publikoaren aprobetxamenduaren gaineko tasa bat ezartzeko. Datozen asteetan, horretarako eman beharreko urratsen berri emango zaie toki entitateei

## 2.6 EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA (EJZ)

22/20 Foru Legeak (12. atalak, lehen xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako lehenbizikoak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 150.1 artikuluari g) letra gehitu zion, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino gutxiagokoa duten subjektu pasiboak zergatik salbuetsiz. Xedapenak negozio-zifra hori jarduera-modu guztietan neurtzeko modua zehazten du. Salbuetsitako jarduerak Nafarroako Gobernuak identifikatuko ditu Jarduera Ekonomikoen Erregistroan. Udalek jardueren erroldako altak eta bajak izapidetzen jarraituko dute, salbuespen hori gorabehera.

Salbuespen horren ondorioz jasotzen ez diren diru-sarrerak Toki Ogasunen Funtsaren zuzkidura espezifiko baten bidez konpentsatuko zaizkie toki entitateei. Toki Ogasunen Funtsari buruzko Foru Legearen proiektuak, aurreko ekitaldian bezala, zerga-aldiko zerga-kuoten %100eko konpentsazioa kuantifikatzen du, salbuespenik ez balego, 2020an aplikatutako zergaren errekargu-koefizienteak kontuan hartuta. 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, kuoten ehunekoa %95 izango da. Horrekin bat etorriz, Zerga Neurriei buruzko 21/20 Foru Legeak 10/96 eta 9/94 Foru Legeetan arautukako kooperatiba eta fundazioetara hedatzen du salbuespen hori.

19/21 Foru Legeak (bederatzigarren artikuluak) berriz, ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen foru legea aldatzen du zenbait epigrafe eta horiei dagozkien tarifak gehituta:

661.9 epigrafea. *"Bestelako merkataritza mistoa edo saltoki handietan integratua"* izenekoa

664.2 epigrafea. *"Ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak"* izenekoa

969.7 epigrafea. *"Beste makina automatiko batzuk"* izenekoa

863.1. epigrafea. *"Idazleak"* izenekoa

### 2.7 ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA

Ekitaldi honetan, %3,2 handitu dira Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagozkion tarifak. Tarifa berriak 19/2021 Foru Legearen hamargarren artikuluan jasotzen dira eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera daude indarrean. Honakoak dira tarifak:

| KUOTAK | |
|---|---|
| **A) TURISMO IBILGAILUAK** | |
| - 8 ZALDI FISKAL BAINO GUTXIAGOKOAK | 21,55 EURO. |
| - 8 ZALDI FISKALETIK 12RA BITARTEAN | 60,60 EURO. |
| - 12 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK ETA | 129,26 EURO. |
| - 16 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK | 161,64 EURO. |
| **B) AUTOBUSAK** | |
| - 21 LEKU BAINO GUTXIAGOKOAK | 150,80 EURO. |
| - 21 LEKUTIK 50ERA BITARTEKOAK | 215,47 EURO. |
| - 50 LEKU BAINO GEHIAGOKOAK | 269,34 EURO. |
| **C) KAMIOIAK** | |
| - 1.000 KG BAINO GUTXIAGOKO KARGA | 75,49 EURO. |
| - 1.000 KG-TIK 2.999 KG-RA BITARTEKO KARGA | 150,80 EURO. |
| - 2.999 KG BAINO GEHIAGOKOA IZANIK 9.999 | 215,47 EURO. |
| - 9.999 KG BAINO GEHIAGOKO KARGA | 269,34 EURO. |
| **D) TRAKTOREAK** | |
| - 16 ZALDI FISKAL BAINO GUTXIAGOKOAK | 37,02 EURO. |
| - 16 ZALDI FISKALETIK 25ERAINOKOAK | 74,02 EURO. |
| - 25 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK | 147,85 EURO. |
| **E) ATOIAK ETA ERDI ATOIAK** | |
| - 1.000 KG BAINO GUTXIAGOKO KARGA | 37,78 EURO. |
| - 1.000 KG-TIK 2.999 KG-RA BITARTEKO KARGA | 75,49 EURO. |
| - 2.999 KG BAINO GEHIAGOKO KARGA | 150,80 EURO. |
| **F) BESTELAKO IBILGAILUAK** | |
| - ZIKLOMOTORRAK | 5,43 EURO |
| - 125 CC-RAINOKO MOTOZIKLETAK | 8,15 EURO. |
| - 125 CC BAINO GEHIAGOKOAK IZANIK 250 | 13,51 EURO. |
| - 250 CC BAINO GEHIAGOKOAK IZANIK 500 | 26,63 EURO. |
| - 500 CC BAINO GEHIAGOKOAK IZANIK 1.000 | 53,29 EURO. |
| - 1.000 CC BAINO GEHIAGOKO MOTOZIKLETAK | 106,57 EURO |

22/20 Foru Legeak (13. atalak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 160 artikulua aldatu du desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta egoteagatik salbuetsita geratzen diren ibilgailuei potentzia fiskalaren muga kentzeko. Hortaz, salbuespen hori aplikatzeko, dagoeneko, ez dago 12 zaldi fiskalen muga.

Era berean, Toki Ogasunen Funtsa aldatzeko izapidetzen ari den Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Legearen proiektuak 160.1 e) artikuluan aldaketa bat jasotzen du desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulaturiko ibilgailuen ibilgailu-zergaren salbuespena arautuz, defizit kognitiboari buruzko atalean antzemandako akatsak zuzentzeko. Honela gelditzen da xedapenaren idazketa:

*160. artikulua. Salbuespenak*

*Honako hauek daude zerga honetatik salbuetsiak:*

*e) Egokitzapen bereziak dituzten ibilgailuak. (...) Salbuetsirik egonen dira, halaber, (...) honako ezaugarri hauetakoren bat duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden ibilgailuak:*

*(...)*

*Bigarrena. Funtzio mentaletan urritasuna izatea, eta horrek jarduera-mugen % 25 gutxienez aitortzea.*

Aldaketa horrekin, desgaitasun mota hori ziurtatzeko agiriak arazorik gabe egin ahalko dira toki entitateek salbuespenak ziurtasun osoz eman ahal izateko.

### 2.8 GAINBALIOAREN GAINEKO ZERGA

#### 2.8.1 KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 2021EKO URRIAREN 26KO EPAIAK ZERGAN ERAGINDAKO ALDAKETA

2021eko urriaren 26ko Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondorioz, Nafarroako araudian eraginik ez badu ere, egoki ikusi da 2/95 Foru Legea aldatzea epaiak eskatutakoei egokitzeko. Horregatik onetsi da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen 20/2021 Foru Legea, 172.4, 175.2 eta 175.6 artikuluak aldatzen dituena eta 175.7 artikuluan atal berri bat gehitzen duena. Funtsean, aldaketaren xedea da subjektu pasiboak katastroko balioaren gainean kalkulatutako zergaz haratago beste zerga-oinarri bat aukeratu ahal izatea. Beste zerga-oinarri hori eskualdatze-balioaren eta eskualdatzen den lurzoruaren eskuratze-balioaren arteko diferentziatik lortutako balio-gehikuntza erreala izango da.

Kasu horretan, zerga-oinarria baloratzeko arauak eragiketa zergaren mende dagoela deklaratzeko gainbalioa dagoela zehazteko erregulatu zirenak dira.  Zergadunak balio errealaren hazkundeak zehaztutako zerga-oinarria aplikatzeko aukeratu ahal du, zerga-oinarri hori katastro-balioaren gainean kalkulatutakoa baino txikiagoa dela ziurtatzen denean. Horrenbestez, zergaren likidazio-prozeduran izapide bat gehitu behar da zergadunak aukera hori aplikatzeko eskatu ahal izateko. Horretarako, bi zerga-oinarriak kalkulaturik eduki beharko dira zergadunak jakinarazitako oinarriaren zenbatekoa katastro-balioaren gainean kalkulatutakoa baino txikiagoa dela ziurtatu behar baita.

Zerga-oinarria zehazteko araubide berri hori 2021eko urriaren 26tik aurrera gertatutako zergapeko egitateei aplikatuko zaie. Aurrekoei araudiak lehenago aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

#### 2.8.2 KOEFIZIENTEAK EGUNERATZEA ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEKO

19/21 Foru Legeak (hamargarren artikuluko bigarren atalean) Gainbalioaren gaineko zergaren koefizienteak eguneratzen ditu; izan ere, gehieneko koefizienteak ezarri baitziren eta, legez, urtero eguneratu behar baitira.  Toki entitateak ez badu horren inguruko akordiorik hartzen, legez ezarritako koefizienteak aplikatuko dira. Bestela, toki entitateak beste koefiziente batzuk aplikatu nahi baditu, 2022ko ekitaldi ekonomikoa hasi aurretik indarrean dagoen erabakia hartu beharko du, kontuan hartuta legeak arautzen dituenak gehieneko zifrak direla. Honako hauek dira 2022rako ezarritako gehieneko koefizienteak eta aurrekoekin dagoen aldea:

| ZENBAT DENBO-RAN SORTU DEN | 2021EKO ARAUDIA | 2022KO ARAUDIA | ALDEA |
|---|---|---|---|
| = > 20 urte | 0,50 | 0,55 | 0,05 |
| 19 urte | 0,52 | 0,20 | -0,32 |
| 18 urte | 0,14 | 0,20 | 0,06 |
| 17 urte | 0,13 | 0,06 | -0,07 |
| 16 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 15 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 14 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 13 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 12 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 11 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 10 urte | 0,06 | 0,06 | 0,00 |
| 9 urte | 0,06 | 0,12 | 0,06 |
| 8 urte | 0,06 | 0,19 | 0,13 |
| 7 urte | 0,13 | 0,35 | 0,22 |
| 6 urte | 0,30 | 0,41 | 0,11 |
| 5 urte | 0,36 | 0,33 | -0,03 |
| 4 urte | 0,28 | 0,26 | -0,02 |
| 3 urte | 0,20 | 0,18 | -0,02 |
| 2 urte | 0,11 | 0,11 | 0,00 |
| 1 urte | 0,06 | 0,13 | 0,07 |
| Urte 1 baino gutxiago | 0,06 | 0,06 | 0,00 |

Koefizienteez gain, toki entitateek zerga-tasa finkatu behar dute, %8 eta %25 artean.

### 2.8.3. ZERGAPETURIK EGOTEA: ZERGAPETURIK EGOTEAREN ADIERAZPENA

Zerga-oinarria kalkulatzeko egindako aldaketak gorabehera, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 172. artikuluari erantsitako 4. atalean adierazten denez, hiri-lurren eskualdaketak ez dira zergaren menpe egonen baldin eta subjektu pasiboak frogatzen badu horietan ez dela balio-gehikuntzarik izan. Hori zehazteko, eragiketa horiek agiri bidez jasotako tituluetan zehaztutako lursailaren eskualdaketaren eta eskuratzearen balio errealak konparatuko dira. Nolanahi ere, balioak adierazitakoak baino handiagoak direnean, zilegi da udalak edo eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak egiaztatutako balioak erabiltzea. Eskurapenaren balioak kontuan hartzeko, ez dira kontuan hartuko eragiketak zergapetuko dituzten gastuak edo tributuak.

Irabazizko eskualdaketa denean, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitorpenean jasota dagoena izango da balio horien zenbateko erreala, edo, bestela, lehenago xedatutakoari jarraituz administrazioak egiaztatutakoak.

Eskurapenaren eta eskualdaketaren balioa xehakaturik ez dagoenean, honela kalkulatuko da: eskualdaketaren datan lurraren balio katastralak ondasun higiezinaren balio katastral osoarekiko egiten duen proportzioa aplikatuko da. Proportzio hori higiezinaren eskualdaketarako nahiz eskurapenerako aplikatuko da.

Aitortutako balioen gainean zergapeturik egotearen edo ez egotearen adierazpena behin-behinekoa izango da, hori administrazioak egiaztatutako balioarekin erkatzen ez den bitartean. Foru Komunitateko zerga administrazioak, Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuaren bidez, jakinaraziko die udalei zein diren egiaztatutako balioak kasuan kasuko udal-mugarteko higiezinei dagokienez. Dagoeneko, aukera dago toki entitate bakoitzak hitzarmen bat sinatzeko Nafarroako Zerga Ogasunarekin, zerga-informazioa trukatzeko, egiaztatutako balioak jakinarazteko prozedura ere barne hartuta.

Legeak ez du zehazten zer prozeduraren bidez frogatu behar duten subjektu pasiboek balioa zergapeturik ez dagoela. Oro har, aukera eman beharko da zergapeturik ez egotea eskatzeko likidazioa ekarriko duen aitorpena aurkezten denean; eskuratzearen eta eskualdaketaren balioak dituen dokumentazioa eskatuz, hura izan ezean, eta epe bat emanez hura aurkeztu ahal izateko.

Adierazi behar da ezen, gainerako kasuetan gertatzen ez den bezala, balio-gehikuntzarik ez izateagatik zergapetu gabe gelditzen diren eragiketetan, eskualdaketak eten egiten duela hurrengo eskualdaketan zerga-oinarria zehazteko konputatuko den epea.

### 2.8.4 ZERGAPETURIK EGOTEAREN ADIERAZPENAREN INGURUKO AUZIGAIAK

Aurreko ekitaldian aplikaturiko zergaren aldaketa baino lehen, inoiz ez zen kontuan hartzen lurren eskuratze-balioa, eskualdatutako lurraren katastro-balioa baizik, zerga-oinarriaren parte zelako. Egun ordea, likidazioa egin baino lehen, eskualdaketan baliorik ez dagoela frogatzeko aukera eman behar zaio zergadunari, lurzoruaren eskuratze- eta eskualdatze-balioen arteko aldea dela eta. Hemendik aurrera, balio horiek zergaren zerga-oinarria izan ahalko dira katastro-balioa baino txikiagoak badira. Horregatik, baliteke arazoak sortzea lursailen balioaren hazkunde erreala zehazterakoan, bereziki, higiezinen konfigurazioa ezberdina bada eskurapenaren eta eskualdatzearen momentuan. Adibidez, lursail bat eskuratu baina etxebizitza bat eskualdatzen denean.

22/20 Foru Legeak (hamaseigarren atalak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 173.1 artikulua aldatu zuen. Aldaketa horrek argi uzten du 173.1 artikuluaren a), b) eta c) apartatuei dagozkion irabazizko eskualdatzeetan, hots, ezkontideen arteko eskualdaketetan (haien aktibo amankomunen ordainetan); edo ezkontideen arteko edo seme-alaben aldekoetan banaketa edo dibortzio kasuetan; edo doako edozein titulu bidez aurreko ahaideen, ondorengo ahaideen eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketetan, ez dutela eteten zergaren kuota zehazteko epea, ezta balizko balio-gehikuntza zehazteko epea ere; beraz, kargatu den aurreko eskualdaketaren balioari erreparatu beharko zaio.

## 2.9 ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA (EIOZ)

22/20 Foru Legeak (15. atala), %95erainoko aukerako hobari bat arautu du Eraikuntza, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan, eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezarri dituzten instalazioen edo obren alde. Hobari hori emateko, beharrezkoa izango da beroa sortzeko instalazioetan dagokion homologazioa duten kolektoreak egotea. Ordenantzak onesten ari dira hobari hori aplikatzeko. Ordenantza horietan, hobariak esleitzeko prozedura eta hobaria jasotzeko moduko instalazioen deskribapena zehaztu beharko da.

## 2.10 ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA

31/2013 Foru Legeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatu zuen lehengo okupatu gabeko etxebizitzen gaineko zergaren ordez, Etxebizitza Hutsen gaineko Zerga ezarriz, udalerri guztientzat nahitaezkoa dena.  Aipatu zerga 184. artikulutik 191. artikulura bitartean araututa dago. Nahitaezkoa bada ere, zerga-tasak ezartzeko berariazko akordioa behar du 188. artikuluak ezartzen duenari jarraiki, eta Lurraren gaineko Kontribuzioarekin batera kudeatuko da.

Etxebizitza Hutsen gaineko Zerga huts gisa jotzen den etxebizitzaren katastro-balioaren gaineko kuota bat da. Kuota hori gero eta handiagoa da eta, lehenengo urtean, Lurraren gaineko Kontribuzioaren zergaren baliokidea da. Hurrengo urteetan, tasak handituz doaz etxebizitza hutsik egoteari uzten dion arte. Udalerri bakoitzak aplikatu beharreko karga-tasak onetsi beharko ditu legeak ezarritakoari jarraiki. 4/2019 Foru Legearen xedapenek karga-tasetan eta Lurraldearen gaineko Zergan eragina izan dute; hala, aurreikuspenen arabera, aldaketa bera eta horri egokitzeko bost urteko epea aurten jarriko dira indarrean.

Hutsik dauden etxebizitzen errolda bat oinarritzat harturik ordainarazten da zerga. Errolda hori Nafarroako Gobernuak osatutako Etxebizitza Hutsen Erregistrotik abiatuta egiten da eta erregistro hori, era berean, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubidea arautzen duen 10/2010 Foru Legean dago araututa, 28/2018 Foru Legeak emandako idazketaren arabera. Azken foru lege horrek 42. sexies artikuluari idazketa berri bat ematen dio eta, horren arabera, Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzeaz gain, horren funtzionamendua eta ondorioak arautzen dira.

Foru Gobernua hutsik daudenaren susmoa duen etxebizitzen jabeekin harremanetan jartzen ari da erabil ditzaten edo bestela aipatu erregistroan sartu eta dagokion udal zerga aplikatzeko, halakorik ezarri denean. Etxebizitzak erregistroan sartzen direnean, udalari jakinarazten zaio erroldan sartu eta likidazioa egin dezan. Udalek etxebizitza huts gisa erregistratu direla jakinaraziko diete etxebizitzen titularrei, eta zerga Lurraren gaineko Kontribuzioarekin batera likidatuko dute, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen duen moduan.

## 2.11 LUXUZKO GASTUEN GAINEKO ZERGA KENTZEA BINGO JOKOAN

22/20 Foru Legeak (18. eta 21. atalak) indargabetu egin zuen Luxuzko Gastuen gaineko Zergari dagokion kasuetako bat; hain zuzen ere, bingo jokoan lortutako sarien gaineko karga kentzen da. Hori dela eta, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 179.c, 180.c, 181.c eta 182.c artikuluak indargabetu egin dira. Apenas likidatzen den zerga da, eta jokoaren gaineko beste zerga batzuekin gatazkan sartzen da.

## 2.12 ZORU, ZORUPE ETA HEGALKINEAN EGINDAKO APROBETXAMENDUARI DAGOKION %1,5-EKO TASA

%1,5-eko tasa jabari publikoaren aprobetxamenduari dagokion tasaren kasu berezia da eta herritar guztiei edo zati handi bati eragiten dieten hornidurak banatzen edo merkaturatzen dituzten enpresei aplikatzen zaie. Berezitasuna da konpainiek beren lineekin eta instalazioekin egiten duten jabari publikoaren aprobetxamenduaren balioa termino bakoitzean fakturatzen dutenaren %1,5eko zeharkako prozedura baten bidez kalkulatzen dela. NUKFk kudeatzen du kudeaketa-hitzarmena sinatu duten gas, elektrizitate edo telefonia finkoko konpainia hornitzaileen tasaren kobrantza. Beste enpresa hornitzaile batzuen tasaren kobrantza kudeatzen du, halaber, tasaren kudeaketa eskuordetu dioten toki entitateek hala eskatuta. Enpresa hornitzaileen kopurua handia da eta gero eta zailagoa da tasa hau kudeatzea. NUKF bitartekari ez duten kasuetan, toki entitateak zuzenean likidatu behar du. Komeni da enpresa hornitzaile berrien fakturazioa NUKFri jakinaraztea, bereziki fakturazio-bolumena handia bada, tasa hauen likidazioan NUKFren esku-hartzea aktibatzeko.

22/20 Foru Legeak (3. atalak) Toki Ogasunei buruzko Legearen 105.1 artikulua aldatu zuen aipatu tasaren araudia eguneratzeko eta araubide erkidearen antzera arautzeko. Horrek zergaren kudeaketa errazten du bai eta enpresa merkaturatzaileek zerga betetzea erraztu ere, oro har, ez baitute ezagutzen Nafarroako ogasunen arloko araudia. Gainera, Nafarroako araudia zaharkiturik zegoen energiaren merkatuaren erreforma baino lehen jarri baitzen indarrean. Erregulazio berriak zerga-oinarria zehazteko elementuak zehazten ditu, eta zehazten du konpainia merkaturatzaileek fakturazio-oinarritik kendu ahal izango dituztela banatzaileei sareen erabilera-bidesariengatik ordaintzen dizkieten kopuruak, bai eta ondoren saltzen den energia sortzeko erabiliko diren hornidurengatiko fakturazioa ere (kogenerazio-instalazioak).

NUKFk zerga hau eta aipatu tasa kudeatzeari buruzko informazio guztia NUKFren web-orrian dago ikusgai.

http://www.fnmc.es/eu/2015/03/18/15eko-tasa-kudeatzea/

## 2.13 GOI-TENTSIOKO SAREEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDUAREN GAINEKO TASA

Urte batzuetatik hona, hainbat toki entitatek eta federaziok lanean ari dira energia-hornidurako linea handiei jabari publikoaren aprobetxamenduaren gaineko tasa bat ezartzeko %1,5eko tasaren zergapetzetik kanpo gelditzen baitziren azkeneko erabiltzaileei zuzenean hornidura ematen ez dietelako. Linea horiek erabiltzen duten espazio fisikoagatik ordaindu behar dute tasa baina ez fakturazioarekiko proportzioan. Hori dela eta, ondasun higiezinen kategoriak ezartzerakoan, horien katastro-balioa zenbatesteko, luzeraren arabera baloratzen diren higiezinen tipologia barne hartu zen. Horrek energia-hornidurako goi-tentsioko sareak katastroan alta ematea ahalbidetzen du, Lurraldearen Kontribuzioaren zerga ordain dezaten.

Sare horiek katastroan sartzeari esker beharrezkoak diren txosten ekonomiko-teknikoak egin ahal dira higiezin horien jabari publikoaren aprobetxamenduaren gaineko tasak arautzen dituzten Ordenantza Fiskalak izapidetzeko eta aprobetxamendutik eratorritako erabileraren balioa zenbatesteko, tasa honen zerga-oinarriaren funtsezko elementua baita. NUKF lanean ari da toki entitateen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren artean izenpetutako hitzarmenaren bidez, aipatu txosten ekonomiko-teknikoa egin ahal izateko bai eta hala eskatzen duten entitateentzako dagokion Ordenantza Fiskala egiteko eta 2023an, jada, tasa hori kobratu ahal izateko. Zerga hori ahalik eta lasterren abiatzeko eman beharreko urratsen berri emango zaie toki entitateei.

### 2.14 SANEAMENDUKO KANONA

19/2021 Foru Legeak mantendu egiten ditu Saneamenduko Kanonaren tarifak. Hala ere, foru lege horrek Nafarroako Hondakin--uren Saneamenduari buruzko 10/1988 Foru Legea aldatu egiten du tarifak 13. artikuluan araututa gera daitezen. Honakoak dira tarifa horiek:

Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur--erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,597 euro metro kubiko bakoitzeko.

Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur-erabilerei, etxekoak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasak: 0,715 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da.

Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek eman beharreko baimen administratiboak dituzten erabiltzaileak: 0,086 euro metro kubiko bakoitzeko.

Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik:

| NEURKETA | PREZIOA (euroak/m$^3$) |
|---|---|
| 5 m$^3$ arte | 42,50 euro |
| 10 m$^3$ arte | 85,00 euro |
| 10 m$^3$ baino gehiago | 8,50 euro/m$^3$ |

Taulan agertzen diren zenbatekoei BEZa aplikatuko zaie.

## 3. TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN DUTEN PARTAIDETZAREN FUNTSA

### 3.1. TRIBUTUETAN PARTE-HARTZEKO FUNTS BERRIAREN ARAUBIDEA

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago atal honetako edukia egitean, Parlamentuari eztabaidatzeko eta onesteko igorri berri zaizkion foru legeen proiektuak oinarritzat harturik egin dela eta, beraz, oraindik aldaketak izaten ahal dituela.

Orain arte dagoen informazioaren arabera, 2022ko egungo ekitaldítik aurrera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan duten Parte--hartze Funtsa arautzen duen legedi berria indarrean jarriko da. Araudi hori hiru Foru Legek osatzen dute: Lehenengoak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 123 artikuluaren arautze berria hartzen du bere gain. Bigarrenak Transferentzia Arrunten Funts berria arautzen du denbora-tarte mugagabe baterako; eta hirugarrenak 2022-2028 aldia barne hartzen duen Toki Inbertsioen Plan berria arautzen du.

123 artikuluaren aldaketa nahiko garrantzitsua da nahiz eta, benetan, ez den aplikatu orain arte araututako baldintzetan. Hala, orain arte Nafarroako Ogasunak bildutako zergen diru-sarrera garbien portzentaje baten araberako zuzkidura bat aurreikusten bazen ere, araudi berriak Transferentzia Arrunten Funtsa urtean KPIa gehi bi punturen arabera eguneratzea aurreikusten du, eta Kapital Transferentzien Funtsak berriz, urtean 30 milioi euroko zuzkidura izango du.

Funtsak lau atal izango ditu: Transferentzia Arrunten Funtsa, Kapital Transferentzien Funtsa, NUKF finantzatzeko zuzkidura eta JEZaren salbuespena konpentsatzeko funtsa. Gainera, beste funts batzuk gehitzeko aukera zabalik da, Funtsaren zuzkidura- eta eguneratze-baldintzetatik at egongo liratekeenak.

Lege-proiektuak 4/2019 Foru Legearen Zortzigarren Xedapen Iragankorra zeina Funtsean zerbitzu-moduluen bidez finantzatuko diren zerbitzuak eta jarduerak ezartzen zituena indargabetzen du. Horren ordez, xedapen gehigarri bakarra gehitu du Funtsaren zuzkidurak eta tokian tokiko indarrean dauden toki entitateen eskumenen banaketaren arteko lotura aurreikusten duena. Xedapen horrek hiru urteren buruan eskumenak argitzeko proposamen bat igortzea eskatzen dio Gobernuari, toki entitateei esleituko zaizkien eskumenen finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar diren baliabideen zuzkidura aurreikusiko duena.

### 3.2. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA (2022)

#### 3.2.1 TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN ZUZKIDURA

2022rako Funtsaren zuzkidura Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123 artikuluaren proiektuan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkaturik gelditu da; osotara, 257.859.026 euro. Kopuru hori izango da urtero KPIa gehi bi punturen arabera eguneratuko dena. Gainera, 13.900.000 euroko beste zuzkidura bat gehitzen da 2022an JEZaren salbuespena konpentsatzeko. Azken kopuru hori konpentsazioaren balio errealaren arabera likidatuko da eta, horregatik, ez dago eguneratzearen irizpide orokorrari lotua.

Funtsaren barruan, Montepioen Defizitaren finantziazioa handitu egiten da toki entitateei gainkosturik ez eragiteko. Aktiboan dauden funtzionarioen gizarte segurantzaren enpresa--kotizazioaren baliokidea den kostua izango da toki entitateen kostu bakarra. Bestalde, Iruñeko Udalaren Hiriburutza Agiria eta Hautetsien Ordainsariengatiko Konpentsazioa desagertu egiten dira, funts ez finalista gisa egituratu direnez gero, inolako erabilgarritasunik ez zutelako.

Aurreko ekitaldietako Funtsarekin erkatzeko, kontuan hartu behar da funtsaren egitura aldatu egin dela, nagusiki, bi zuzkidura berri agertu direlako: Zerbitzuetarako Funtsa, ikastetxe, haur eskola, liburutegi eta Montepioen defiziterako finantziazio berezia barne hartzen duena bata; eta Kohesioko Funtsa trakzio-izaera edo nolabaiteko zentraltasun-maila duten 29 udalerriren artean banatzen dena bestea. Hori guztia kontuan harturik, Transferentzia Arrunten Funtsaren aurrekontu-zuzkidura %6,14 handitzen da, nahiz eta benetan %7,47 handitzen dela esan dezakegun. Izan ere, JEZaren konpentsaziorako kopuru txikiagoa aurreikusi baita 2021ean egindako likidazioa ere txikiagoa izan delako.

Atal honetan aipatu lege-proiektuak honako estekan kontsultatzen ahal dira:

https://www.parlamentodenavarra.es/sites/default/files/boletines/A2022008.pdf

#### 3.2.2 TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA TOKI ENTITATE BAKOITZARI NOLA BANATZEN ZAION

Funtsa banatzeko formula nabarmen aldatuko da, ez hainbeste Funts Orokorragatik horri dagokion formulak ez baitu aldaketa esanguratsurik, baizik eta funts berriak daudelako eta Montepioen defizitaren finantziazioa handitzen delako. Azken hilabeteetan, Departamentuak banaketa-sistema berriaren behin

behineko emaitzak aurkeztu ditu momentu horretan zituen datuei formula berria aplikatuz. Beraz, estimazio gisa hartu behar dira eta ez azkenean banatuko den kopuru gisa.

Banaketa sistema jarraian azaltzen den moduan egituratzen da:

- **Funts orokorra** honako aldagaien eta haztapenen arabera banatzen zaio udalerri bakoitzari:

| ALDAGAIA | HAZTAPENA | AKRONIMOA |
|---|---|---|
| BIZTANLERIA | 0,64575 | POB |
| ERABILERA PUBLIKOKO HIRI-AZALERA | 0,07275 | SUP |
| BIZTANLERIAREN SAKABANAKETA-INDIZEA | 0,01875 | DIS |
| 65 URTE BAINO GEHIAGOKO BIZTANLEAK | 0,06750 | P65 |
| POBREZIA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEEN HAZTAPENA | 0,06000 | PRB |
| LURRAREN KONTRIBUZIOAREN KUOTA OSOA | 0,56872 | CU |
| TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ESKUBIDE LIKIDATUAK | 0,19271 | IVTM |
| LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK, ERRENTEI ETA APROBETXAMENDU BEREZIE DAGOZKIENAK | 0,12980 | IPAC |
| EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN OINARRI-KUOTA | 0,10877 | IAE |

Aurreko ereduarekin erkatuta, honakoak dira ezberdintasun nagusienak: “Etorkinak” aldagaiaren ordez, “Pobrezia-arriskuan dagoen Biztanleria” kontuan hartzen da eta gaitasun fiskalari dagozkion aldagaiak modu positiboan baloratzen dira. Modu horretan, banaketarako kontuan hartzen den balioa formulan barne hartutako diru-sarrera bakoitzaren likidazio zenbatetsiaren alderantzizkoa da.

Kontuan hartu behar da ezen, ibilgailuen zergaren oinarri fiskalari dagokion aldagaia aplikatzeko, beharrezkoa dela toki entitateek aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa edo kontua igorrita izatea; bestela, eskuratzen ahal den azken ekitaldiko balioa %10 handituta aplikatuko da. Aurreko hiru ekitaldien gaineko informaziorik ez badago, aldagai horren per capita datu handiena aplikatuko da, biztanle kopuruarekin biderkatuta.

Udal konposatuen kasuan, kontzejuari zuzkiduraren %30 esleituko zaio kontzejuko biztanleriak udalerri osoarekiko duen ehunekoarekin biderkatuta.

- **Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsaren banaketa**

Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsak honakoen finantziazioa osatzen du: titulartasun publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen finantziazioa, Hezkuntza Departamentuak baimendutako Haur Hezkuntzako Lehen zikloko ikastetxeena (0-3 urte), Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udal liburutegiena eta Montepioen defizita, dagoeneko aipatu dugun baldintzetan.

Kontuan hartu behar da funts honen agerpenarekin Hezkuntza Departamentuak eskola kontzentrazioen herriburu diren toki entitateei eskola kontzentrazioetarako herrian bizi ez diren baina arauak hala aginduta kontzentrazio horietan eskolatzen diren ikasle kopuruaren arabera ematen zien dirulaguntza desagertu egiten dela.

Banaketarako aldagaiak ekitaldi bakoitzean zerbitzuak emateko unitateekin loturik daude eta honakoak dira:

| ZERBITZUAK FINANTZATZEKO FUNTSA | |
|---|---|
| ZUZKIDURA | BANAKETARAKO IRIZPIDEA |
| Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak | Eskola-unitateen eta ikasle kopuruaren araberako banaketa |
| 0-3 urtekoen ikastetxeak | Finantziazio-moduluen eta hitzarmenaren araberako banaketa |
| Liburutegiak | Liburutegiaren azaleraren araberako banaketa eta liburuzain postua dagoen edo ez kontuan hartuko da |
| Montepioen defizita | Toki entitateek jasandako defizit osoa konpentsatzea, aktiboen soldata-kostuaren gizarte-segurantzako kotizazioari dagokion % 32 izan ezik.Partida osoa kontsumitzen ez bada, gainontzekoa Funts Orokorrera igaroko da. |

Lege-proiektuak xedapen osagarriak ezartzen ditu funts hau esleitzeko udalerriaz bestelako toki entitateek, kontzejuek edo elkarteek, zerbitzua kudeatzen duten kasu partikularretan.

- **Lurralde Kohesiorako Funtsaren banaketa**

Lurralde Kohesiorako Funtsa trakzio-izaera duten 29 udalerriren artean banatzen da eta udalerri bakoitzaren parte-hartze portzentajea Trakzio Gaitasunaren Indizearen arabera ezartzen da. Indize horrek banaketa-sistema horretan sartutako entitatearen populazioa haztatu egiten da. Ondorioz, parte-hartzearen ehunekoa da indize horren arabera haztatutako biztanleria ordezkatzen duena, barnean hartutako 29 udalerrien guztizkoari dagokionez.

Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia gaitu egiten da lau urtean behin Trakzio Gaitasunaren Indizea (TGI) eguneratzeko. Hortaz, laugarren urtera arte ez du aldaketarik izango. Beraz, funts honetako parte-hartzearen portzentajea biztanleriaren aldaketaren arabera aldatuko da soilik.

Hurrengo orrialdean 2022an aurreikusitako udalerriak, Trakzio Gaitasunaren Indizeak (TGI), Talde motaren Indizea (TI), Haztapen Faktorea (HF) eta horien arabera gutxi gorabeherako banaketa jasotzen dituen taula ikus daiteke.

### 3.2.3 BERME-SISTEMA

Aurrekoaz bestelako berme-sistema bat ezarri da. 2021ean jasotako kopuruen bermea egonkor mantentzen da urtean %1 eguneratuz. 5000 biztanle baino gehiagoko udalerrien gutxieneko zuzkidura jasotakoaren %98a da. Udalerriei bermatzen zaien kopurua 2021ean jasotakoa da, mendeko langileengatiko montepioen defizitari dagokion zatia kenduta, hori zuzkidura aldagarria delako.

Kontzejuei dagokienez, berme-sistema bera aplikatzen da baina funtsetik jaso ahal den gehieneko kopuru bat ezartzen da, hots, biztanleria-tarteen arabera jasotakoaren batezbestekoaren %150. Irizpide horren justifikazioa da aurreko sistemak kontzeju zehatz batzuei gehiegizko kopuruak ematen zizkiela dagoeneko ematen ez dituzten zerbitzu batzuk oinarritzat harturik, adibidez, eskola-kontzentrazioak edo dagoeneko erabiltzen ez diren aldagaien balioak.

| TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN EGITURAREN ERKAKETA 2022-2021 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 2022KO FUNTSA | | 2021EKO FUNTSA | | ALDEA | % |
| **FUNTS OROKORRA** | 196.709.026 | **FUNTS OROKORRA** | 200.276.495 | -3.567.469 | |
| | | IRUÑEKO HIRIBURUTZA AGIRIA | 26.115.018 | -26.115.018 | |
| | | ORDAINSARIEN KONPENTSAZIOA | 6.118.300 | -6.118.300 | |
| NUKFren LAGUNTZA | 450.000 | NUKFren LAGUNTZA | 436.029 | 13.971 | |
| **ZERBITZUEN FUNTSA** | | | | | |
| Ikastetxeak | 16.000.000 | | | 16.000.000 | |
| Otik 3 urte bitartekoak | 3.000.000 | | | 3.000.000 | |
| Liburutegiak | 1.000.000 | | | 1.000.000 | |
| Montepioak | 24.500.000 | | 7.000.000 | 17.500.000 | |
| KOHESIOKO FUNTSA | 16.200.000 | | | 16.200.000 | |
| **OSOTARA** | **257.859.026** | **OSOTARA** | **239.945.842** | **17.913.184** | **%7,47** |
| JEZaren KONPENTSAZIOA | 13.900.000 | JEZaren KONPENTSAZIOA | 16.100.000 | -2.200.000 | |
| **GUZTIRA** | **271.759.026** | **GUZTIRA** | **256.045.842** | **15.713.184** | **%6,14** |

Honakoak dira, biztanleria-tarteen arabera, kontzejuentzako gehieneko kopuruak:

| KONTZEJUAREN BIZTANLERIA (BIZTANLEAK) | GEHIENEKO BERMEA (EUROAK) |
|---|---|
| 25, gehienez | 4.971 |
| 26-50 artean | 10.007 |
| 51-75 artean | 11.508 |
| 76-100 artean | 17.151 |
| 101-150 artean | 25.313 |
| 151-200 artean | 29.488 |
| 201-500 artean | 54.235 |
| 501-1.000 artean | 98.747 |
| 1.001-2.000 artean | 101.244 |
| 2.001-3.000 artean | 311.028 |
| 3.000 baino gehiago | 431.429 |

Lege-proiektuak, eranskin batean, bermatutako kopuruak ezarrita ditu finkaturik gera daitezen eta entitate bakoitzak zein kopuru aplikatzen zaion jakin dezan.

Bermeen urteko %1aren eguneratzea KPIaren garapena positiboa izatearen mende gelditzen da. Beraz, KPIa negatiboa baldin bada, baina KPIa gehi bi punturen baturak balio positiboa ematen badu, hazkundea osorik formula aplikatzera bideratuko da eta ez bermea handitzera.

### 3.2.4 BALORAZIO TXOSTENAK GAURKOTZEA

Aurreikuspenen arabera, udalek katastroko balioak gaurkotu gabe badituzte edo indarreko legeriarekin bat balorazio prozesua hasi gabe badute, transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten zenbatekoa %10 murriztuko da. Indarreko legeria aipatzen denean, araudiak balorazio txostenak berrikusteko aurreikusten duen bost urteko gehieneko epeari dagokiola ulertzen da. Hala ere, xedapenak ez du zehazten zeintzuk diren hartu behar diren akordioak.

Beste neurri batzuk hartu ez badira, behintzat, txostena eguneratzeko erabakia hartua izan beharko du Osoko Bilkurak, betiere toki entitateak jaso beharreko zenbatekoa zehaztu baino lehen. Teorian, hori gertatzen da banatzeko aldagaien balioa zehazteko behar den informazioa aurkezteko epea bukatzen denean, hau da, apirilaren 30ean.

### 3.2.5 FUNTSAREN ATXIKIPENA AURREKONTUETAKO ETA KONTABILITATEKO LIKIDAZIOEN INGURUAN INFORMAZIOA EZ BIDALTZEAGATIK

Lege-proiektuak ezartzen duenari jarraiki, entitate batek igorri ez badu banaketarenaurreko bigarren urteko kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa, jaso beharreko kopuruaren %10 atxikiko zaio. Behin betebehar horri beteta, atxikitako zenbatekoak ordainduko dira.

Halaber, lege-proiektuak jasotakoarekin bat, baldin eta ukitutako toki entitateek behar bezala justifikatzen badute aipatutako betebehar hori ezin dutela bete, toki administrazioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak funtsen atxikipena eteten ahalko du, egindako alegazioen arabera, osoko bilkurak edo ukitutako entitateko organo baliokideak eskaera egin ondoren.

### 3.2.6 JEZ-AREN SALBUESPENA KONPENTSATZEKO ZUZKIDURA

Orain arteko baldintza beretsuetan, 1.000.000 euro baino gutxiagoko fakturazioa duten jardueren JEZ-aren salbuespena konpentsatzeko 13,9 milioiko zuzkidura aurreikusten da. Konpentsazioa salbuetsita geratu diren kuota guztien baliokidea da, baina udalerri bakoitzak 2020an aplikatutako zergaren errekargu-koefizienteak kontuan hartuta. Aurreko ekitaldirako, kasu honetan 2021erako, likidazio zenbatetsia konpentsatu egiten da. 5.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, konpentsazioa kuoten %95ekoa izango da. Udal bakoitzari dagokion zenbatekoa Nafarroako Gobernuak zehaztuko du.

### 3.2.7 NOLA BANATZEN ZAIZKION TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA OROKORRA ETA BESTELAKO LAGUNTZAK TOKI ENTITATE BAKOITZARI

Funtsa bi ordainketatan banatuko da otsaileko eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Lehenengo ordainketa aurreko ekitaldian jasotakoaren %50 izango da. Abuztuan berriz, gainontzekoa ordainduko da banaketa formula aplikatu ondoren. Horretarako, eta adierazi den moduan, maiatzaren bata baino lehen beharrezkoa izango da aldagaiak aplikatzeko eskatzen den informazioa aurkeztea, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren likidazioari buruzkoa, aurreko ekitaldiko kontuak edo aurrekontuen likidazioa aurretik bidali ez badira.

Montepioen defizitari dagokion zatia bigarren ordainketan likidatuko da eta JEZ-aren salbuespena bi soluziotan, ekaina eta urria amaitu baino lehen. Lehenengo ordainketaren zenbatekoa aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren erdia izango da.

### 3.3. KAPITAL TRANSFERENTZIEN FUNTSA: TOKI INBERTSIOEN PLAN BERRIA

Atal honen edukia gehiago garatuko da informazio espezifikoarekin, hura arautzen duen lege-proiektua Parlamentuak onartu ondoren, oraindik gauzatu ez diren aldaketa-konpromisoak daudelako. Hurrengo lerroetan, Planaren eduki orokorraren eta aurreko planekin erkatuta jasotzen dituen berritasunen laburpena jasotzen da.

Honako esteka honetan kontsulta daiteke Parlamentura igorritako foru legearen proiektuaren testua:

https://www.parlamentodenavarra.es/sites/default/files/boletines/A2022009.pdf

2022ko ekitaldi honetan, Toki Inbertsioen Plan (TIP) berri bat abian jarri da. Plan horren araubidea, egun, Parlamentuko izapidetze-prozesuan dagoen lege-proiektu batean biltzen da. TIP berriak urtean 30 milioi euroko zuzkidura finkoa du eta, aurreko planetako antzeko hiru atal ditu: Inbertsioen Programak, Toki Programazioa eta Libreki erabaki beharreko funtsak. Planak 2022tik 2028ra bitarteko indarraldia izango du. Eta luzatu egingo da hurrengo plana indarrean egon arte baina urteko zuzkidura berri batekin; aurreko planen luzapenetan gertatzen ez zen bezala.

Planak bi programazio-aldi ditu: 2022tik 2025era eta 2026tik 2028ra. Ekitaldi bakoitzean 9 milioi bideratuko dira, hurrenez hurren, Inbertsioen Programetarako eta Libreki erabaki beharreko funtsetarako eta 12 milioi ordea, Toki-Programaziorako. Hala eta guztiz ere, 2022 honetan ez da Toki Programaziorik egongo denborarik ez dagoelako proiektuak izapidetzeko. Hortaz, 15 milioi emango dira, hurrenez hurren, Inbertsioen Programetarako eta Libreki Erabaki beharreko funtsetarako.

**2022RAKO AURREIKUSITAKO KOHESIORAKO FUNTSA**

| UDALA | TGI | TI | HF=TGI/TI | BIZTANLERIA 2021/01/01 | BIZTANLERIA HAZTATUA | FUNTSAREN % | KOHESIORAKO FUNTSA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | 44 | 1,2 | 36,67 | 203.944 | 7.477.946,67 | %82,8457 | 13.255.304,96 |
| Tutera | 34 | 2 | 17,00 | 37.042 | 629.714,00 | %6,9764 | 1.116.222,34 |
| Lizarra | 31 | 2 | 15,50 | 13.991 | 216.860,50 | %2,4025 | 384.403,93 |
| Zangoza | 29 | 2 | 14,50 | 4.933 | 71.528,50 | %0,7924 | 126.790,43 |
| Tafalla | 29 | 2 | 14,50 | 10.621 | 154.004,50 | %1,7062 | 272.986,25 |
| Altsasu | 28 | 2 | 14,00 | 7.465 | 104.510,00 | %1,1578 | 185.252,98 |
| Baztan | 28 | 2 | 14,00 | 7.850 | 109.900,00 | %1,2175 | 194.807,22 |
| Agoitz | 23 | 3,4 | 6,76 | 2.777 | 18.785,59 | %0,2081 | 33.299,07 |
| Azkoien | 21 | 3,4 | 6,18 | 5.951 | 36.756,18 | %0,4072 | 65.153,49 |
| Viana | 21 | 3,4 | 6,18 | 4.260 | 26.311,76 | %0,2915 | 46.639,87 |
| Irurtzun | 18 | 3,4 | 5,29 | 2.247 | 11.895,88 | %0,1318 | 21.086,48 |
| Gares | 17 | 3,4 | 5,00 | 2.889 | 14.445,00 | %0,1600 | 25.605,01 |
| San Adrián | 17 | 3,4 | 5,00 | 6.344 | 31.720,00 | %0,3514 | 56.226,43 |
| Doneztebe | 16 | 3,4 | 4,71 | 1.763 | 8.296,47 | %0,0919 | 14.706,21 |
| Bera | 21 | 5,5 | 3,82 | 3.753 | 14.329,64 | %0,1588 | 25.400,52 |
| Auritz | 17 | 5,5 | 3,09 | 227 | 701,64 | %0,0078 | 1.243,71 |
| Corella | 16 | 5,5 | 2,91 | 8.100 | 23.563,64 | %0,2611 | 41.768,58 |
| Leitza | 16 | 5,5 | 2,91 | 2.965 | 8.625,45 | %0,0956 | 15.289,36 |
| Lodosa | 16 | 5,5 | 2,91 | 4.837 | 14.071,27 | %0,1559 | 24.942,54 |
| Ilunberri | 16 | 5,5 | 2,91 | 1.299 | 3.778,91 | %0,0419 | 6.698,44 |
| Esteribar | 15 | 5,5 | 2,73 | 2.726 | 7.434,55 | %0,0824 | 13.178,37 |
| Milagro | 15 | 5,5 | 2,73 | 3.450 | 9.409,09 | %0,1042 | 16.678,42 |
| Los Arcos | 14 | 5,5 | 2,55 | 1.127 | 2.868,73 | %0,0318 | 5.085,07 |
| Lekunberri | 14 | 5,5 | 2,55 | 1.574 | 4.006,55 | %0,0444 | 7.101,95 |
| Cascante | 14 | 5,5 | 2,55 | 3.952 | 10.059,64 | %0,1114 | 17.831,57 |
| Caparroso | 12 | 5,5 | 2,18 | 2.801 | 6.111,27 | %0,0677 | 10.832,76 |
| Izaba | 12 | 5,5 | 2,18 | 403 | 879,27 | %0,0097 | 1.558,59 |
| Cortes | 12 | 5,5 | 2,18 | 3.178 | 6.933,82 | %0,0768 | 12.290,79 |
| Otsagabia | 10 | 5,5 | 1,82 | 501 | 910,91 | %0,0101 | 1.614,66 |
| **GUZTIRA** | | | | | **9.026.359,41** | | **16.000.000,00** |

| ENTITATE BAKOITZEKO GEHIENEKO EKARPENA HORNIDURAKO, SANEAMENDUKO ETA EURI-URETA -KO SAREEN LANETAN | |
|---|---|
| POPULAZIO TARTEA | MANKOMUNITATEAK |
| 1.000 biztanle bitarte | 400.000,00 |
| 1.001 eta 7.000 biztanle artean | 700.000,00 |
| 7.001 eta 35.000 biztanle artean | 900.000,00 |
| 35.001 eta 100.000 biztanle artean | 1.200.000,00 |
| 100.000 biztanle baino gehiago | 1.500.000,00 |
| | MANKOMUNATU GABEKO ENTITATEA |
| 1.000 biztanle bitarte | 200.000,00 |
| 1.001 eta 5.000 biztanle artean | 350.000,00 |
| 5.001 eta 10.000 biztanle artean | 500.000,00 |
| 10.001 eta 25.000 biztanle artean | 600.000,00 |
| 25.000 biztanle baino gehiago | 800.000,00 |

### 3.3.1 INBERTSIO PROGRAMAK

Inbertsio Programei eskainitako atalak goi-hornidurako jarduketak eta hondakinen kudeaketa integrala barne hartzen ditu. Inbertsioak Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez gehituko dira, aldez aurretik Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena izanik, eta 2019-2030 aldirako uraren ziklo integralaren plan gidarian eta 2017-2027 aldirako Nafarroako hondakinen planean jasotako aurreikuspenen arabera gauzatuko dira. Era berean, atal honek uraren goi-hornidurare inguruko azterketak eta proiektuak egiteko zuzkidura txiki bat ere dakar. Lege-proiektuaren V. eranskinak 2022-2025 aldirako ebazpenak gutxienez barne hartuko dituen inbertsioak jasotzen ditu. Programazioaren bigarren aldiari dagokion inbertsio-proposamena 2025eko bigarren hiruhilekoan egingo da. Obrak %80 edo %95 finantzatuko dira BEZa kengarria den edo ez kontuan hartuta.

### 3.3.2 TOKI PROGRAMAZIOA

Toki programazioko jarduerak dira planean edo erreserba-zerrendan sartzeko hautatu eta lehenetsiko diren toki inbertsioen multzoa. Honakoak dira aurreikusitako inbertsio-lerroak:

*Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:* Ur edangarria banatzeko sareak, 30 urte edo gehiago dituztenak, berritzeko inbertsioak, erregulazio biltegietatik hasi eta etxeetako harguneetaraino, bai eta ur beltzen saneamenduko sareak berritzekoak ere, etxeetako harguneetatik araztegiaren aurreko hustubide orokorreraino; ur beltzen eta euri-uren baterako sareen ordez sare bereizleak jartzeko inbertsioak, hirigunearen barruan sortutako euri-uren sareak berritu edo jartzekoak eta hiri drainatze jasangarrirako inbertsioak.

*Zoladura-lanak sareekin:* Eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan bide publikoen zoladura-lanetarako inbertsioak, horietan, aldi berean, aurreko apartatuko sareak berritzeko inbertsio finantzagarri bat ere egitea aurreikusten denean.

*Sarerik gabeko zoladura-lanak:* Bide publikoen zoladura-lanak, sarbidea emateko toki erakundeko bizilagunen interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten instalazioei edo bizilagun iraunkorrak dituzten etxebizitzei, horien xede nagusia bada oinezkoen eta/edo zerbitzu publikoen ibilgailuen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea. Horretaz gain, lur publikoei eusteko hormak ere bai, aurreko paragrafoan aipatzen diren bideetako batean daudenean.

*Zeharbideen urbanizazio-lanak:* Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak, udal eskumeneko azpiegiturei dagokienez, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin koordinatuta egin beharrekoak. Ezinbestekoa izango da toki entitate eskatzailearen eta herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren arteko lankidetza hitzarmena.

*Udal eta kontzejuetako zuzkidurak:* Honako inbertsioak barne hartzen ditu:

- Erabilera anitzeko zentro, udaletxe edo kontzeju-etxe gisa erabiliko diren eraikinak egiteko obrak, halako instalaziorik ez duten toki entitateetan edo horiek birgaitzerik ez dagoenean arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik.
- Eraikinak edo barrutiak birgaitzea edo berritzea, kirol, gizarte, kultura, jolas zentro edo erabilera anitzeko zentro gisa nahiz hilerri, udaletxe, kontzeju-etxe gisa erabiltzeko eta alokatzeko etxebizitzak egiteko, inbertsioaren helburu nagusia hauetako bat edo batzuk direnean: egokitzapen funtzionala; eraikuntza-araudiari egokitzea; inguratzaileak, energia-efizientzia eta uraren erabilera hobetzea, eta amiantoa kentzea.

### 3.3.3 TOKI PROGRAMAZIOAN OBRA-ESKAERAK EGITEKO MURRIZKETAK

Plan berriak aurrekoek ez bezala, murrizketak ezartzen ditu toki entitateek Toki Programazioan egiten ahal dituzten obra-eskaerei dagokienez. Toki entitate bakoitzak aurkezten ahal dituen eskaeren gehieneko kopuruari dagokionez arau hauek bete beharko dira:

**Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareen eta zeharbideak urbanizatzeko lanen inbertsio lerrorako**, toki entitate bakoitzak aurkezten dituen eskaeretatik soilik onartzen ahalko dira toki entitate horrentzat finkatutako gehieneko ekarpen ekonomikoari %50 gehitzearen emaitza adinako ekarpena egiten dutenak, banaka nahiz denak batera.

**Zoladura-lanak sareekin** egiteko inbertsio lerrorako, soilik onartzen ahalko dira hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareetako inbertsio batekin batera gauzatu behar diren obretarako eskaerak, aurreko atalean adierazitakoa jarraikiz aurkeztu badira.

**Udal eta kontzejuetako zuzkidurei eta sarerik gabeko zoladurei dagozkien lerroetan**, aldiz, soilik onartzen ahalko dira toki erakunde bakoitzak aurkezten dituen eskaeretatik toki erakunde horrentzat finkatutako gehieneko ekarpen ekonomikoa adinako ekarpena egiten dutenak, banaka nahiz denak batera, inbertsio lerro bakoitzerako.

### 3.3.4 TOKI PROGRAMAZIOKO INBERTSIOAK SARTZEKO, HAUTATZEKO ETA LEHENESTEKO PROZEDURA

Toki programazioan obrak sartzeko prozedura beste planen antzera egituratzen da. Behin behineko eta behin betiko sartzeak daude, sartu gabeko obren baimentzea aurreikusten da eta zuzkidura bat erreserbatzen da larrialdiko jarduketetarako. Aurreratu egiten da inbertsioak hasteko baimena bai eta ekarpenen ordainketa ere.

Prozedura Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiaren ebazpen batekin hasiko da zeinaren bidez inbertsio lerro bakoitzaren

kopuru globalak eta eskaerak aurkezteko inprimakiak onetsiko baitira. Ebazpen hori legea indarrean jartzen denetik 15 eguneko epean onetsiko da. Hortik aurrera, entitateek bi hilabete izango dituzte eskaerak aurkezteko. Eskaera horiek memoria tekniko baloratu batean jaso beharko dira. Ondoren, eskaerak hautatzeko eta lehenesteko prozesua etorriko da eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean ebazpena emango da onartutako eta erreserban geldituriko inbertsioen zerrendarekin. Behin behineko onartze horren ondoren, entitateak inbertsioak gauzatzen hasi ahalko dira. Aurreko planetan ordea, inbertsioak egiten hasteko behin betiko onarpenaren zain egon behar zen.

Behin behineko onarpena eman ondoren, entitateek 4 hilabete dituzte dokumentazio guztia aurkezteko, gauzatze-proiektua barne, eta Departamentuak behin betiko onarpena eman behar du, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Behin behineko onarpenean aurreikusitako inbertsioaren zenbatekoa %10 handitu ahalko da. Behin betiko onarpenean, inbertsioa justifikatu beharko den aurrekontu-ekitaldia zehaztuko da, zeina bat etorriko den gastua aurreikusita dagoen azken ekitaldiarekin, gehienez ere dagokion ekitaldiaren azaroaren 20a.

Eskaeren hautatzea eta lehenespena eskaerei ezarritako murrizketak kontuan harturik egingo da. Hortaz, onartuak ez diren eskaerak egoten ahal dira. Plana osatuko duten eskaerak bi parametroren arabera lehenetsiko dira: inbertsiorako beharraren maila (GNI) eta toki entitateak aurreko Toki Inbertsioen Planetatik jaso dituen ekarpenen bolumenaren balioa 2018an onetsitako Finantzarioki Jasangarriak diren Inbertsioen Plana barne.

Inbertsiorako beharraren maila GNI adierazlearen arabera neurtzen da eta 10, 8 edo 4 balioak hartzen ditu, hurrenez hurren inbertsioak premiazkoak, epe laburrean beharrezkoak edo komenigarriak diren adierazteko. Eskaeren arabera, Plana premiazkoak diren eta epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioekin osatuko da eta inbertsio-lerro bakoitzaren zuzkidurak doituko dira inbertsio horiek beste edozein inbertsio-lerroko komenigarriak diren inbertsioen aurretik lehenesteko. Lege--proiektuaren III. eranskinean, eskaerak hautatu eta lehenesteko irizpideak zehazten dira eta inbertsio mota bakoitzari dagokion GNI adierazlearen balorazio-irizpideak deskribatzen dira.

Ekarpenen bolumenaren aldagaia, berriz, 1etik 10era bitarteko balioekin (hiru hamartarretan biribilduta) neurtzen da toki inbertsioen azken bi toki planetan Toki Programazioko eta Zeharbideen Urbanizazio-lanak ataletan egin diren inbertsioen onuradun izan den toki entitateari dagokion per capita ekarpenaren alderantzizko proportzioan. Bigarren programazio-aldian, 2017-2019 Toki Inbertsioen Planaren balioak hartuko dira (Finantzarioki Jasangarriak diren Inbertsioen Plana barne) eta 2023-2025eko lehenengo programazio aldia.

### 3.3.5 EKARPEN EKONOMIKOAREN ORDAINKETA

Oro har, ordainketa bi zatitan eginen da:

- Lehenengo zatian gehieneko ekarpen ekonomikoaren %65 ordainduko da ofizioz, 2 hilabeteko epean inbertsioa behin betiko sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, inbertsioa edo haren zati bat ekitaldi horretarako konprometiturik badago. Gastua etorkizuneko ekitaldietarako konprometituta baldin badago, gastua konprometituta dagoen lehen ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen eginen da ordainketa.
- Bigarren zatia ekarpenaren gainerakoa inbertsioa justifikatu ondoren ordainduko da. Obra bukaerako ordainketa eskatu eta inbertsioa justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea azaroaren 20an bukatuko da, inbertsioa behin betiko sartzeko ebazpenean ezartzen den ekitaldikoan, eta ekitaldi hori izango da gastua konprometituta dagoen azkena.

### 3.3.6 LIBREKI ERABAKI BEHARREKO FUNTSEN PROGRAMA

Libreki Erabaki Beharreko Funtsen atala toki entitate bakoitzak erabakitzen dituen inbertsioak finantzatzeko erabili beharreko ekarpen bihurtzen da eta ez da justifikatu beharrik eta ez du erabiltzeko denbora-mugarik ere. Funtsa helburu horretarako erabiltzen dela kontrolatzea entitatearen barne kontrolerako organoei dagokie soilik. Horregatik, funts hori aplikatzeko malgutasun handiagoa dago eta ekitaldi batean erabiltzen ez bada, gerakin gisa geldituko da hurrengo ekitaldietan erabili ahal izateko.

| TIP BERRIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INBERTSIO-LERROA | ZUZKIDURA GUZTIRA (%) | 2022KO ZUZKIDURA | URTEKO ZUZKIDURA HURRENGO URTETAN | FINANTZIAZIOA (BEZ EZ KENGARRIA) | FINANTZIAZIOA (BEZ KENGARRIA) | GEHIENEKO EKARPENA ENTITATE BAKOITZEKO |
| **INBERTSIO PROGRAMAK** | | | | | | |
| Uraren goi-hornidura | %80 | 12.000.000 | 7.200.000 | %95 | %80 | |
| Hiri-hondakinen tratamendua | %19 | 2.850.000 | 1.710.000 | %95 | %80 | |
| Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak | %1 | 150.000 | 90.000 | %100 | %100 | |
| **TOKI PROGRAMAZIOA** | | | | | | |
| Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak | %30 | | 3.600.000 | %85 | %70 | Entitatearen eta tamainaren araberakoa |
| Zoladura-lanak sareekin | %32 | | 3.840.000 | %85 | %70 | Sareei lotua |
| Sarerik gabeko zoladura-lanak | %12 | | 1.440.000 | %75 | %60 | 150.000 |
| Zeharbideen urbanizazio-lanak | %8 | | 960.000 | %85 | %70 | 600.000 |
| Udal eta kontzejuetako zuzkidurak | %18 | | 2.160.000 | %75 | %60 | 150.000 |
| Alokatzeko etxebizitzen eraikinetarako zuzkidurak | | | | | | 60.000 |
| **LIBREKI ERABAKI BEHARREKO PROGRAMA** | | | | | | |
| Libreki Erabaki Beharreko zuzkidura | %100 | 15.000.000 | 9.000.000 | %100 | %100 | Erabilera librea |

Toki entitate bakoitzari dagokion Libreki Erabaki Beharreko Funtsen zenbatekoa biztanle kopuruaren arabera zehaztuko da; populazio tarteen arabera entitate bakoitzak zenbateko finko bat jasoko du. Gainera, udalerri konposatuek eta biztanlegune atxikiak dituzten udalerri bakunek zenbateko gehigarri bat jasoko dute, populazioaren sakabanaketa geografikoan oinarrituta. Era berean, kontzejuentzako ekarpen zuzen bat egongo da. Kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerriari dagokion zenbatekoaren %60 biderkatuko da udalerriko biztanleria osoaren gainean kontzejuko bizilagunen kopuruak duen proportzioarekin.

Entitate bakoitzarentzako zenbateko finkoak handiagoak dira 2022an, 15 milioi banatzen direlako eta aurreko urteetan berriz, 9 milioi. Udalerri konposatuei gehitzen zaien zenbatekoa aldagarria da sakabanaketa indizearen aplikazioaren mende dagoelako tokian toki ezberdina izanik. Kontzejuei 3.000 euroko gutxieneko zenbatekoa bermatzen zaie 2022an eta 1.800 euro hurrengo urteetan.

| LIBREKI ERABAKI BEHARREKO FUNTSEN BANAKETA SAKABANAKETA APLIKATU GABE | | |
|---|---|---|
| POPULAZIO TARTEA | 2022. URTEA | 2023. URTEA ETA HURRENGOAK |
| 99, gehienez | 18.216,00 | 10.929,60 |
| 100 eta 499 artean | 31.812,00 | 19.087,20 |
| 500 eta 999 artean | 54.516,00 | 32.709,60 |
| 1.000 eta 1.999 artean | 63.624,00 | 38.174,40 |
| 2.000 eta 2.999 artean | 72.732,00 | 43.639,20 |
| 3.000 eta 4.999 artean | 81.840,00 | 49.104,00 |
| 5.000 eta 9.999 artean | 95.436,00 | 57.261,60 |
| 10.000 eta 29.999 artean | 120.516,00 | 72.309,60 |
| 30.000 eta 199.999 artean | 172.788,00 | 103.672,80 |
| 199.999 baino gehiago | 294.888,00 | 176.932,80 |
| Kontzejuentzako gutxieneko zenbatekoa | 3.000,00 | 1.800,00 |

## 4. TRANSFERENTZIEN EDO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAK

### 4.1 IZAERA FINALISTA DUTEN FORU GOBERNUKO DIRULAGUNTZAK

2022ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek ezarpen orokorreko zerbitzuak – hau da, Gizarte, Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Eskualdeko Garraio Publikoko Zerbitzuak – finantzatzen dituzten transferentzia arrunten eta kapital transferentzien multzo bat jasotzen dute. Horiek mantendu eta handitu egiten dira eta, aurreko urtearekin alderatuta, 6.617 milioi euroko saldo positiboa ematen dute transferentzia arruntetan eta 15.930 milioi eurokoa kapital transferentzietan. Aurrekontu-lerroen zerrenda zehatza txosten honen amaierako eranskinean ikus daiteke. Bertan, ez dira toki entitateen banakako jarduketetara bideratutako dirulaguntza izendun guztiak zehazten; horiek legea izapidetzean egondako lege-zuzenketen xede izan ziren eta NUKFk berak ere kritikatu egin zituen. Izan ere, dirulaguntza horiek toki inbertsioen finantziazio orokorra planifikatzea ekiditen baitute eta tokiko finantzaketari joera politikoa ematen baitiote, tokiko finantzaketari buruzko araudi orokorra urratuz. Aurrekontuak transferentzia arruntetarako eta kapital transferentzietarako zuzkidurak barne hartzen ditu 5.955 eta 16.584 milioi euro, hurrenez hurren, eta horiek Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsekin finantzatzen dira. Diru-partidak gorriz markatu dira txosten honen eranskinean.

### 4.2 TOKI ENTITATEEN PARTE-HARTZEA EUROPAKO FUNTSETAN

2020ko maiatzean, Europar Batasunak finantza-tresna multzo bat ezarri zuen ekonomia suspertzeko. Tresnarik garrantzitsuena Next Generation (aurrerantzean NG) izeneko funtsa da, Europar Batasunaren aurrekontuaren barruan dagoena eta 2021-2027 aldirako 750.000 milioi euro dituena. Funts hori oso tresna indartsua da Batasunaren trantsizio ekologikorako eta ekonomia suspertzeko, eta helburu horiek estuki loturik daude; izan ere, hazkunde ekonomiko sendoa proposatzeko, ezinbestekoa da ingurumen aldetik jasangarria izatea. Hala ere, tresna konplexua da administrazioaren ikuspuntutik eta bai Europar Batasunaren estatu kideek bai eskualdeek eta toki entitateek ere NG Funtsak finantzatuko dituen proiektuak finkatzeko esparrua ezarri behar dute.

NG Funtsak ministerioek kudeatzen dituzten estatu mailako dirulaguntza deialdien bidez artikulatzen dira edo funts erregionalizatuen bidez. Funts horiek autonomia-erkidegoei helarazten zaizkie, zuzeneko gastuaren edo, besteak beste, toki entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdi berrien bidez kudeatu ditzaten. Horregatik, ez dago patroi argi bat eta etengabe kontsultatu behar da une bakoitzean zabalik dauden deialdiak ezagutzeko. Hori dela eta, NUKFk Next Generation Funtsen behatoki bat ezarri eta hilean behin eguneratutako informazioa biltzen duten buletinak argitaratzen ditu. Gainera, toki entitateen interesekoak diren jardunaldi tematikoak antolatzen ditu. Ondoren, ekitaldi honetako deialdien gutxi gorabeherako egutegia ikusten ahal da:

Prozedurari dagokionez, 2021eko irailean Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren 1030 eta 1031 aginduak onetsi ziren. Horien bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema ezarri da, eta onetsi egin dira mugarrien eta helburuen jarraipena egiteko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia planaren osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko administrazio publikoek jakinarazi behar duten informazioaren prozedura eta formatua. Alegia, "Iruzurraren kontrako plana" deiturikoa onetsi dute. NUKF eraginpeko entitateekin lanean ari da funtsen onuradun diren entitateei laguntzeko dokumentu bat egiteko, sistema hori ezarri ahal izan dezaten. Horretarako, hiru hilabeteko epea egongo da, laguntzak jasoko direla baieztatu ondoren.

Europako funtsen inguruko informazioa NUKFren web gunean eskuragarri dago, honako estekan:

http://www.fnmc.es/eu/europako-berreskuratze-funtsak/

## 5. TOKI ENTITATEEN ZORPETZEARI JARRITAKO MUGAK

22/20 Foru Legeak (4. eta 10. atalek) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 125etik 131ra bitarteko artikuluak aldatzen ditu Nafarroako toki entitateen epe luzerako zorpetzea arautzeko. Aurreko araudia 2011n baliogabetu zuten, konstituzio auzitegiaren epai baten bidez eta, orain arte, araubide erkidearen araudia aplikatzen zen. Hemendik aurrera, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak aurreikusitakoa indarrean dago; orain arte aplikatzen

zenaren eduki oso antzekoarekin. Hortaz, zorpetzearen baldintzak eta mugak ez dira aldatzen baina bai ordea araudiari dagozkion erreferentziak.

Foru araudiak finantza zuhurtasunaren printzipioa bete beharra ezartzen du zeinak kreditu-eragiketak ituntzeko gehieneko baldintzak mugatzen baititu. Araudiak, halaber, araubide erkidearen baldintza baliokideak direnak ezartzen ditu.

Aurreko ekitaldian likidatutako baliabideak erreferentzia gisa hartzen dituzten mugak aplikatu ahal izateko, aurreko ekitaldira jotzeko aukera ematen da, oraindik aurrekontua likidatu gabe dagoenean. Hori epe luzeko nahiz laburreko eragiketetan aplikatuko da.

Toki entitateen epe luzeko zorpetzeak, xedea edozein dela ere, honako baldintzak bete beharko ditu:

1. Zor biziaren bolumena aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten %110 baino txikiagoa izatea, egonkortutako zenbatekoari dagokionean.
2. Toki Administrazioaren Departamentuaren baimena zor bizia azken ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten %75 baino gehiagokoa bada. Baimena beharko da halaber, kanpoan ituntzen diren eragiketetarako edo zor publikoa jaulkitzeko.
3. Halaber, finantza-tutoretzako organoaren baimena beharko da inbertsioak aldi bateko finantzatzen dituzten eta diru-sarrera arrunten %35 gainditzen duten epe laburreko eragiketetarako.
4. Baimena behar den kasuetan, baimen hori gehienez ere bi hilabeteko epean jakinaraziko da, eta, baimenik ez dagoen bitartean, eragiketari lotutako gastu-konpromisoek ezin izango dute irmotasuna hartu.
5. Aurreko ekitaldiaren likidazioan aurrezki positibo garbia edukitzea. Ulertuko da aurrezki garbia dela diru-sarrera arruntengatik likidatutako eskubideen eta gastuen egoera-orrietako lehen, bigarren eta laugarren kapituluetan aitortutako betebeharren arteko diferentzia, zenbateko hau kenduta: urteko amortizazio-kuota teoriko bat, proiektatutako eragiketarena eta ordaintzeko dauden mailegu eta jesapen bereki nahiz hirugarrenei abalatutako bakoitzarena. 130. artikuluak kreditu-eragiketaren urteko kuota teorikoa kalkulatzeko modua zehazten du bai eta aurrezki garbian kontuan hartu beharreko diru-sarrerak.
6. Eragiketek finantza zuhurtasunaren printzipioa betetzea. Printzipio horrek kreditu-eragiketak ituntzeko interes-baldintzak eta epea ezartzen ditu bai eta abalak emateko mugak ere.
7. Toki Administrazioaren Departamentuari erreferentziazko magnitudeak kalkulatzeko kontuan hartuko den aurrekontuaren likidazioa igorri izana.
8. Zor-eragiketa bat, bere modalitate guztietan, izenpetu, kitatu edo aldatu eta ondoko hilabeteko gehieneko epean, toki entitateak eragiketaren baldintzak eta horren amortizazio taula jakinaraziko dizkio finantza tutoretzako organoari.
9. Toki entitateen menpeko erakundeek kreditu eragiketak hitzartzeko, korporazioaren osoko bilkuraren baimena beharko dute.

**NEXT GENERATION DEIALDIEN GUTXI GORABEHERAKO EGUTEGIA**

| MINISTERIOA | BEEP-aren OSAGAIA | PROGRAMA | 2022 eta 2023 |
|---|---|---|---|
| **ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA** | | | |
| MITMA | C1.I1 | Emisio baxuko eremuak ezartzea eta hiri-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria | 2022ko 1. HIRUHILEKOA |
| IDAE | C1.I2 | MOVES III. Ibilgailu elektrikoak eta kargatzeko azpiegiturak | 2023/12/31 (itxiera) |
| MITERD | C7.I1 | Autokontsumoa eta biltegiratzea (4, 5 eta 6 lerroak) | 2023/12/31 (itxiera) |
| MITMA | C2.I5 | Eraikuntza Publikoen Birgaitzea Sustatzeko Programa (PIREP) | 2022ko 1. HIRUHILEKOA |
| **MERKATARITZA, KULTURA, TURISMO ETA GIZARTE ARLOKO JARDUERAK** | | | |
| MINCOTUR | C14.I1 | Helmugako Turismo-jasangarritasuneko Planak | 2022KO eta 2023KO URTAR. |
| MINCOTUR | C14.I4 | Merkatuei, hiriko merkataritza-eremuei, merkataritza ez finkoari eta merkaturatze-bide laburrei lag | 2022ko eta 2023ko 1. HIRUH. |
| MINCOTUR | C14.I4 | Landa eremuetan merkataritza-jarduera laguntzea | 2022ko eta 2023ko 1. HIRUH. |
| MINCOTUR | C14.I4 | Eremu turistikoetan merkataritza-jarduera indartzea | 2022ko eta 2023ko 1. HIRUH. |
| MDSA | C22.I2 | Berrikuntza proiektu pilotuak gizarte zerbitzuetan | 2002 eta 2023 |
| MCD | C24.I2 | Arte eszenikoen eta musikalen azpiegituren modernizazioa eta kudeaketa iraunkorra | 2022 |
| MCD | C24.I2 | Espainiako kultur ondarea kontserbatzea, zaharberritzea eta horren garrantzia azpimarratzea | - |
| **HIRI-BERRONERATZEA** | | | |
| MITMA | C2.I1 | Birgaitze Programatuko Etxebizitza Inguruneen Programa | 2022ko 1. HIRUHILEKOA |
| MITERD | C10.I1 | Trantsizioan dauden udalerri eta lurraldeetako ingurumen-azpiegituren eta azpiegitura digitalen eta | 2022ko 1. HIRUHILEKOA |
| **INGURUMENA** | | | |
| F. BIODIVERSIDAD | C4.I3 | Espainiako hiriak birnaturalizatzera eta erresilientziara bideratutako jarduerak | 2022ko eta 2023ko 2. HIRUH |
| MITERD | C12.I3 | Hondakinei buruzko araudia ezartzen laguntzeko plana | 2022ko eta 2023ko 1. HIRUH |
| MITERD | C5.I2 | Ibaien ekosistemen jarraipena egitea eta horiek birgaitzea | 2022 eta 2023 |
| MITERD | C5.I2 | Uholde-arriskua leuntzeko jarduketak | 2022/03/16 (itxiera) |

Era berean, birfinantziazio-eragiketak egin ahalko dira Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2. artikuluan (2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan) adierazten den moduan, finantza tutoretzako organoak horretarako baimena eman ondoren eta finantza zuhurtasunaren printzipioa betez (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen ehunda bederatzigarren xedapen gehigarria).

## 6. AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA

### 6.1 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNARI ETA FINANTZAREN JASANGARRITASUNARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA

Europako Batzordeak 2020an Egonkortasunaren eta Hazkundearen Itunaren babes klausula orokorra aplikatzea erabaki zuen, 2021ean luzatu egin zuen eta 2022an ere indarrean mantentzeko baldintzak betetzen direla erabaki du.

2021eko uztailaren 27ko Ministroen Kontseiluko erabakiak, Diputatuen Kongresuak irailaren 13an berretsiak, Arau Fiskalen aplikazioa bertan behera utzi zuen 2022ko ekitaldirako. Hortaz, ez dira defizitari eta gastu-arauari dagozkion mugak aplikatuko. Mantendu egiten dira zorpetzeari aplikatzen zaizkion finantza jasangarritasunaren mugak. Horrenbestez, gainditutzat jotzen dira toki entitateek indarrean dituzten ekonomia eta finantza planak eta ez dira plan horiek onetsi beharko, 2022ko aurrekontuetan eta 2021eko aurrekontuetako likidazioan mugak betetzen ez direnean. Halaber, mugarik gabe aplikatu ahalko dira diruzaintzako gerakinak gastuak finantzatzeko. Era berean, ez da aplikatuko Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluak ezartzen duen superabita erabiltzeko muga.

Era berean, eta orain guztiz aplikatzekoak ez badira ere, kontuan hartu behar dira Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako Nafarroako toki entitateei aurrekontu-egonkortasuna aplikatzeko berezitasunak.

17/2004 Errege Lege-dekretuak finantza zuhurtasunaren printzipioa ezarri zuen; horren bidez, toki entitateek egiten dituzten zorpetze-eragiketa guztiak baldintza jakin batzuetan hitzartu behar dira, haien kostuak ez dezan gainditu Estatuak zor publikoaren jaulkipenean ordaindu beharrekoa. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenen bidez, aldizka zehazten dira baldintza horiek, interesei, komisioei eta zorraren epeari dagokienez. Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen aldaketaren ondorioz, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendari Nagusiaren ebazpenaren bidez, aurrekontu egonkortasunaren mugak betetzen dituzten Nafarroako toki entitateei aplikatuko zaizkien baldintzak onetsi ziren. Urtarrilaren 28ko 7/2021 Ebazpena.

### 6.2 AURREKONTU EGONKORTASUNA BETETZEARI BURUZKO INFORMAZIOA MINISTERIOARI EMATEKO BETEBEHARRA

Arau fiskalak eteteak ez die eragiten HAP/2105/2012 Ministerio Aginduan ezarritako Ministerioari informazioa emateko betebeharrei. Agindu horrek betebehar batzuk ezartzen ditu, aldizkakoak eta ez aldizkakoak, aurrekontu-betearazpenaren inguruko informazioa emateari buruz, zerga-arauak betetzeko aurreikuspenen berri emateko. 5.000 biztanletik beherako entitateentzat betebehar ezberdinak ezarri dira.

Nafarroako toki entitateek, informazio hori Toki Administrazioaren Departamentuak eta Ministerioak elkarlanean gaitutako web atari baten bidez igorri behar dute. Igorriko den informazioa Toki Administrazioaren Departamentuak ezarritako jarraibideei men egin beharko die, hori baita finantza-tutoretzako organoa. Garrantzitsua da aurrekontuei eta haien likidazioari buruzko informazioa bidaltzea, bai eta ordaintzeko batez besteko aldia jakinaraztea ere.

## 7. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOEN ZERBITZUKO LANGILEEI DAGOZKIEN NEURRIAK 2022KO EKITALDIRAKO

### 7.1 NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN EGUNERAKETA

Aurreko ekitaldian gertatu moduan, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Funtzio Publikoaren Estatutuan aurreikusitako funtzionario-araubidea aplikatuko zaien langileen ordainsarien igoera ezartzen dute; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2022rako ezartzen duen gehieneko igoera orokorra. Beraz, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ordainsarien igoera %2 izango da 2021eko abenduaren 31n indarrean ziren ordainsariekiko. Igoera ondoren egiten denean ere, eguneratzea urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez eginen da. Estatuko Aurrekontu Orokorrak onetsi ondoren, ordainsari-igoera gauzatzen ahal da.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 2022ko bost mailetako oinarrizko ordainsarien urteko zenbatekoa biltzen duen koadroa jasotzen du, aurreko ekitaldiko ordainsari-igoerak aplikatu ondoren; beraz, %2ko igoera aplikatzeko baino ezin da erreferentziatzat hartu. Gainera, kontuan hartu behar dira antzinatasunaren, graduaren, familia-laguntzaren eta aplikatzen diren bestelako berariazko osagarrien ondoriozko gehigarriak ere.

Maila bakoitzaren hasierako soldatak 2022an, eguneratu gabe

| MAILA | URTEKO ZENBATEKOA |
|---|---|
| A | 27.682,20 |
| B | 23.288,16 |
| C | 19.318,46 |
| D | 16.824,78 |
| E | 14.799,26 |

Lan-kontratuko langileentzat, aurreko paragrafoan adierazitako eguneratze bera aurreikusten da, salbu eta langile horiek beren kontratu-harremana arautzen duten hitzarmen espezifikoak badituzte.

### 7.2 LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ETA LANALDIA

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak (20. artikuluak) ezarritakoaren arabera, langile berriak sartzeko %120ko berritze-tasa aplikatuko da lehentasunezko sektoreetan, eta %110ekoa gainerako sektoreetan. Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n haien finantza-zorra amortizatu duten toki entitateek %120ko berritze-tasa izango dute sektore guztietan. Tokiko polizien kasuan, berritze-tasa %125 izango da. Administrazioen lehentasunezko sektoreen deskribapena 20. artikuluaren lehen puntuaren 3. atalean adierazita dago.

Lehentasunezko sektore bati edo batzuei dagokien berritze-tasa beste lehentasunezko sektore batzuetan metatu ahalko da. Era berean, lehentasunezkoak ez diren sektoreei dagokien berritze-tasa lehentasunezko sektoreetan metatu ahalko da. Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n zorra amortizatua duten toki entitateen kasuan, berritze-tasa edozein sektoretan metatzeko aukera ezartzen da.

Bestalde, eutsi egiten zaio aldi baterako langileen kontratazioaren murrizketari, eta salbuespenezko izaera ematen zaio, betiere premiazko egoera edo premia atzeraezinei lotuta.

### 7.3 LANGILEEN EGONKORTZE-TASA

2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikuluan eta uztailaren 3ko 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legearen 19.bat.9 artikuluan araututako egonkortze-prozesuez gain, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituenak, behin-behineko enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen du. Barne hartuko dira aurrekontua edukita, gutxienez 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan behin-behinean eta jarraian beteta egon diren egiturazko lanpostuak.

Era berean, Seigarren Xedapen Gehigarriak iraupen luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko ohiz kanpoko prozesu bat ezartzen du. Prozesu hori lehiaketa-sistema bidez egingo da eta, bertan, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen behin-behinean eta etenik gabe okupatutako egiturazko lanpostuak bilduko dira. Ezinbestekoa da lege-egokitzapen edo -aldaketaren bat gertatzea xedapen horiek Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu ahal izateko.

### 7.4 TOKI UDALBATZETAKO KIDEEN ORDAINSARIEN ARAUBIDEA

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak (hogeita seigarren xedapen gehigarriak) toki udalbatzen kideek jasotzen ahal dituzten ordainsarien mugak eguneratzen ditu biztanle kopuruaren eta kideen dedikazio motaren arabera. Nafarroak muga horiek erabakitzeko eskumena izan arren, eskumen hori gauzatu ez duenez, araubide erkiderako zehazten direnak aplikatzen dira.

Aipatu mugak Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 75 bis artikuluan, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak idatzitako eran, aurreikusitakoarekin bat ezartzen dira. Hala, gehieneko mugak ordainsari-kontzeptu eta bertaratze guztiak barne hartzen ditu, zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek eskubidea duten hirurtekoak izan ezik.

Honakoak dira eguneratutako zenbatekoak eta dedikazio esklusiboko gehieneko hautetsi kopurua:

| 1.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIAK | |
|---|---|
| **BIZTANLEAK** | **MUGA (EUROTAN)** |
| 500.000 biztanle baino gehiago | 111.684,46 |
| 300.001etik 500.000ra. | 100.516,00 |
| 150.001etik 300.000ra | 89.347,55 |
| 75.001etik 150.000ra | 83.763,88 |
| 50.001etik 75.000ra | 72.595,46 |
| 20.001etik 50.000ra | 61.427,01 |
| 10.001etik 20.000ra | 55.842,25 |
| 5.001etik 10.000ra | 50.258,57 |
| 1.000tik 5.000ra | 44.673,79 |
| **1.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALAK** | |
| **DEDIKAZIOA** | **MUGA (EUROTAN)** |
| Dedikazio partziala %75. | 33.505,38 |
| Dedikazio partziala %50. | 24.570,42 |
| Dedikazio partziala %25. | 16.753,28 |

| GEHIENEKO HAUTETSI KOPURUA DEDIKAZIO ESKLUSIBOAREKIN | |
|---|---|
| **BIZTANLEAK** | **Zk.** |
| 100.001etik 300.000ra | 18 |
| 35,001etik 50,000ra | 11 |
| 20.001etik 35.000ra | 10 |
| 15.001etik 20.000ra | 7 |
| 10.001etik 15.000ra | 5 |
| 3,001etik 10.000ra | 3 |
| 2,001etik 3.000ra | 2 |
| 1.001etik 2.000ra | 1 |
| < 1.001 | 0 |

### 7.5 LANGILE PASIBOAK

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 10. artikuluaren arabera, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek pentsio publikoetarako onesten den eguneratze bera izango dute. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearekin bat, 2022an pentsioek, oro har, %2ko igoera izango dute 2021ean izandako zenbatekoarekiko.

Bestalde, 10/2003 Foru Legeak (martxoaren 14ko 32. NAO) zeinak Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorra ezartzen baitu, hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusten duenez, aurreko ekitaldian sortutako pentsioak ordaintzeko derrama guztizkoaren %64,3 izango da tokiko montepio orokorraren kasuan eta %77,1 berriz, Iruñeko, Tuterako eta Tafallako montepioen kasuan. Halaber, derramaren urteko gehieneko kopurua ezartzen da. 2002 urtetik aurrera, diru-muga horrek pentsioetarako finkatzen den igoera izango du.

Toki Ogasunei buruzko Funtseko zuzkidura berriaren ondorioz, aurreko irizpideen barruan sartzen ez den Montepioen Defizita funtsak finantzatuko du salbu eta jardunean dauden montepioetako funtzionarioen soldata-masaren %32ko kotizazioari dagokion kostua.

Kotizazio-tasak ez dira aldatzen.

### 7.6 GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIAK ETA -TASAK

Honakoak dira 2022rako kotizazio-oinarriak:

| KOTIZAZIO TALDEA | KATEGORIA PROFESIONALAK | GUTXIENEKO KOTIZAZIO-OINARRIAK €/HIL | GEHIENEKO KOTIZAZIO-OINARRIAK €/HIL |
|---|---|---|---|
| 1 | Ingeniariak eta Lizentziatuak. | 1.572,30 | 4.139,40 |
| 2 | Ingeniari Teknikoak, Perituak eta Laguntzaile tituludunak. | 1.303,80 | 4.139,40 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 3 | Administrazioko eta lantegiko buruak. | 1.134,30 | 4.139,40 |
| 4 | Laguntzaile titulugabeak. | 1.125,90 | 4.139,40 |
| 5 | Administrari-ofizialak. | 1.125,90 | 4.139,40 |
| 6 | Menpeko enplegatuak. | 1.125,90 | 4.139,40 |
| 7 | Administrari-ofizialak. | 1.125,90 | 4.139,40 |
| | | GUTXIENEKO KOTIZAZIO-OINARRIAK €/HIL | GEHIENEKO KOTIZAZIO-OINARRIAK €/HIL |
| 8 | Lehen eta bigarren mailako ofizialak | 37,53 | 137,98 |
| 9 | Hirugarren mailako ofizialak eta espezialistak. | 37,53 | 137,98 |
| 10 | Peoiak. | 37,53 | 137,98 |
| 11 | Hemezortzi urtetik beherako langileak haien kategoria profesionala edozein dela ere. | 37,53 | 137,98 |

2010eko enplegatu publikoen soldatak jaitsi aurretik ezarritako kotizazio-oinarriek bere horretan jarraitzen dute, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezartzen duen bezala:

*106. artikulua. Gizarte Segurantzaren, langabeziaren, jarduera uzteagatiko babesaren, Soldatak Bermatzeko Funtsaren eta Lanbide Heziketaren kotizazio-oinarriak eta -tasak 2022. urtean.*

*2022. urtean, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege-dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatu zaien eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta dauden enplegatu publikoen kontingentzia guztiengatiko kotizazio-oinarria, lan- edo zerbitzu-harremanak dirauen bitartean, 2010eko abenduan izandakoarekin bat etorriko da, salbu eta, jasotzen zituzten ordainsariengatik zenbateko handiagoa egokituko balitzaie; kasu horretan, zenbateko handiago horren arabera gauzatuko litzateke hileroko kotizazioa.*

*Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 2010eko abenduari dagokion kotizazio-oinarritik kenduko dira, hala badagokio, sortzapenean hilekoa baino aldizkakotasun handiagoa duten edo aldizkakoak ez diren ordainsari-kontzeptuen zenbatekoak, baldin eta oinarri hori hainbanatu gabe integratu badute.*

| KOTIZAZIO TASAK (%) | | | |
|---|---|---|---|
| KONTINGENTZIAK | ENPRESA | LANGILEAK | GUZTIRA |
| Arruntak | 23,60 | 4,70 | 28,30 |
| Ezinbesteko aparteko orduak | 12,00 | 2,00 | 14,00 |
| Gainontzeko aparteko orduak | 23,60 | 4,70 | 28,30 |

### 7.7 UDALTZAINGOEN KOTIZAZIO GEHIGARRIA ERRETIRO ADINA AURRERATZEKO

Toki-administrazioen zerbitzura dauden udaltzaingoetako kideei dagokienez, kontingentzia arruntei dagokien kotizazio-oinarriaren gainean kotizazio-tasa gehigarri bat aplikatuko da, bai Administrazioarentzat, bai funtzionarioarentzat, polizien erretiro adinaren aurreratzea ezartzen duen 1449/2018 Errege Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, kotizazio gehigarriaren tasa ehuneko 10,60 izango da eta horretatik ehuneko 8,84 administrazioaren kargura izango da eta ehuneko 1,76 funtzionarioaren kargura.

*106. artikulua. Gizarte Segurantzaren, langabeziaren, jarduera uzteagatiko babesaren, Soldatak Bermatzeko Funtsaren eta Lanbide Heziketaren kotizazio-oinarriak eta -tasak 2022. urtean.*

*Hamasei. Toki entitateen zerbitzura dauden udaltzaingoko kideen erretiro adina aurreratzearekin lotutako berezitasunak kotizazio alorrean.*

*Abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuak aipatzen dituen toki entitateetako udaltzaingoei dagokienez (1449/2018 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, toki administrazioa osatzen duten entitateetako udaltzainen aldeko erretiro adinaren koefiziente murriztailea ezartzen duena), kotizazio-tasa gehigarri bat aplikatuko zaie kontingentzia arruntei dagokien kotizazio-oinarriari, bai enpresarentzat, bai langilearentzat.*

*2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko paragrafoak ezartzen duen kotizazio gehigarria ehuneko 10,60 izango da eta, horretatik, ehuneko 8,84 enpresaren kargura izanen da eta ehuneko 1,76 langilearen kargura.*

### 7.8 GUTXIENEKO SOLDATA ETA ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA-ADIERAZLE PUBLIKOA

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LGS) luzatu egin da. Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa berriz, 2022ko Aurrekontuen Legean eguneratu da.

2021erako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata finkatzen duen irailaren 28ko 817/2021 Errege Dekretuaren indarraldia luzatzea aurreikusten du Abenduaren 28ko 32/2021 Errege lege--dekretuaren 7. Xedapen Gehigarriak.

#### 2022KO LANBIDE ARTEKO GUTXIENEKO SOLDATA

(Otsailaren 22ko 152/2022 Errege Dekretua)

| € -./EGUNEKO | €-./HILABETEKO | € -./URTEKO |
|---|---|---|
| 33,33 € | 1.000 € | 14.000€ |

#### 2022KO ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA-ADIERAZLE PUBLIKOA

(Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen ehun eta batgarren xedapen gehigarria)

| | € -./ EGUNEKO | €-./ HILABETEKO | €- /URTEKO (12 PAGA) |
|---|---|---|---|
| EGUNGO BALIOA | 19,30 € | 579,02 € | 6.948,24 € |

## ERANSKINA

### 2022KO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREK BARNE HARTZEN DITUZTEN TOKI ENTITATEEI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZEN AURREKONTU-LERROAK

(AURREKONTUAK PARLAMENTUAN TRAMITATZEAN SARTUTAKO PARTIDA IZENDUNAK BATURIK AGERTZEN DIRA ETA GORRIZ ADIERAZI DIRA NEXT GENERATION FUNTSEK FINANTZATZEN DITUZTENAK)

## ERANSKINA: 2022KO NAFARROAKO AURREKONTUETAN TOKI ENTITATEEI DAGOZKIEN AURREKONTU-LERROAK

### TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

| DEPARTAMENTUA/PROGRAMA/PROIEKTUA/PARTIDA | € |
|---|---|
| **0 LEHENDAKARITZA, BERDINTAS., FUNTZIO PUB. ETA BARN. DEP.** | **18.071.098** |
| 010 LEHENDAKARITZAKO ETA GOBERNU IREKIKO JARDUERA OROKORRAK | |
| 010005 Gobernu Irekiko zerbitzua | |
| 010005 01720 4609 924900 Suspertu Plana, toki entitateentzako | 120.000 |
| 020 FUNTZIO PUBLIKOA | |
| 020002 Langileen kudeaketa ekonomikoa | |
| 020002 04310 4609 942300 Montepio Orokorretik toki entitateei | 6.740.715 |
| 020002 04310 4609 942302 Transferentziak Iruña, Tafalla eta | 9.762.853 |
| 021 NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA | |
| 021001 Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua | |
| 021001 04500 4609 921300 Toki Administraziorako etengabeko | 155.500 |
| 050 BARNEKO ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU ZENTRALAK | |
| 050000 Barneko jarduera orokorrak | |
| 050000 02000 4609 131100 Larrialdi, hondamendi egoeretarako | 10 |
| 054 SUHILTZAILEAK ETA BABES ZIBILA | |
| 054000 Prebentzioa, suak itzaltzea eta salbamendua | |
| 054000 02800 4609 134200 Udalentzako dirulaguntzak suhiltzaile | 181.000 |
| 054001 Babes Zibila | |
| 054001 02500 4609 134100 Babes zibileko toki erakunde eta | 90.000 |
| 054001 02500 4609 134102 Babes zibilerako seinaleztapena | 40.000 |
| 080 NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA | |
| 080001 Genero berdintasunaren arloko jarduketak | |
| 080001 08100 4609 232200 Toki entitateentzako transferentziak | 576.000 |
| 080001 08300 4609 232200 Nafarroako toki entitateentzako | 10.010 |
| 080001 08300 4609 232202 Hitzarmena Burlatako Udalarekin | 40.010 |
| 090 GAZTERIA ARLOAREN SUSTAPENA | |
| 090002 Gazteriarentzako jardueren sustapena | |
| 090002 09120 4609 232103 Toki entitateek gazteentzako | 330.000 |
| 090002 09120 4609 232103 Toki entitateek gazteentzako | 25.000 |
| **1 EKONOMIA ETA OGASUNEKO DEPARTAMENTUA** | |
| **2 LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA** | **15.683.443** |
| 210 JARDUKETAK TOKIKO SEKTOREAN | |
| 210001 Laguntza-jarduketak tokiko sektorearentzat | |
| 210001 21100 4609 922300 Transferentzia Petilla Aragoiko Udalari | 10 |
| 210001 21100 4609 942300 Toki entitateentzako konpentsazioa toki | 887.433 |
| Agoizko Udalarentzako transferentzia Kamporda udal elkartearen | 188.000 |
| 210001 21300 4609 452100 Hitzarmena Garesko Udalarekin | 200.000 |
| 230 GARRAIOEN PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKUNTZA | |
| 230001 Planifikazioa, araudi juridikoa eta modernizazioa | |
| 230001 23100 4609 441100 Iruñerriko garraio publikoari eginiko | 14.408.000 |
| **3 LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISAIAKO ETA** | **265.000** |
| 310 LURRALDE ANTOLAMENDUA | |
| 310000 Lurraldea eta paisaia | |
| 310000 31100 4609 261700 Toki entitateentzako dirulaguntzak | 80.000 |
| 320 ETXEBIZITZA | |
| 320000 Lurraren eta etxebizitzaren kudeaketa | |
| 330 PROIEKTU ESTRATEGIKOAK | |
| 330000 Proiektu estrategikoak | |
| 330000 33100 4609 921100 Pirinioetan proiektuak gauzatzeko | 90.000 |
| 330000 33100 4609 921103 Hitzarmena Yerri eta Gesalazko | 30.000 |
| 330000 33100 4609 921104 Red Explora dirulaguntzak lurraldeko | 65.000 |
| **4 HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA** | **19.805.880** |
| 410 HEZKUNTZA BALIABIDEAK | |
| 410002 Bekak eta laguntzak | |
| (E) ARDOIKO ESKOLA GARRAIOA | 40.000 |
| 410002 41600 4609 322000 Toki entitateentzako transferentziak | 600.000 |
| 410002 41610 4609 322003 Transferentziak Erronkari, Otsagabia, | 116.000 |

| DEPARTAMENTUA/PROGRAMA/PROIEKTUA/PARTIDA | € |
|---|---|
| 410004 Zerbitzu osagarriak | |
| 410004 41620 4609 324102 Transferentzia 1.500 biztanletik | 100.000 |
| 420 HEZKUNTZA JARDUERAK | |
| 420001 Eleaniztasuna eta arte ikasketak | |
| 420001 42440 4609 322502 Musika eskolentzako dirulaguntza | 3.000.000 |
| 420001 42440 4609 322503 Tuterako Udalarekiko hitzarmena | 425.000 |
| 420004 42700 4609 322400 Gizarteratzeko eta hezteko | 10 |
| 420002 Antolakuntza, trebakuntza eta kalitatea | |
| 420002 42120 4609 322100 Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte | 12.458.204 |
| 420002 42120 4609 322102 Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte | 1.066.666 |
| 420002 42120 4609 322102 MRR (Suspertze eta Erresilientziarako | 2.000.000 |
| **5 OSASUN DEPARTAMENTUA** | **1.766.379** |
| 520 NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOA ETA LAN OSASUNA | |
| 520001 Gizarte osasunaren sustapena | |
| 520001 51200 4609 313900 Osasunaren prebentzio eta sustapen | 234.130 |
| 520001 51200 4609 313902 Adikzioak prebenitzeko udal | 310.419 |
| 520001 51200 4609 313903 Drogei buruzko Plan Nazionaleko | 10 |
| 520001 51200 4609 313904 Dirulaguntzak udal entitateek ariketa | 50.000 |
| 520001 51200 4609 313905 Dirulaguntzak zahartze aktiborako | 45.000 |
| 520001 51200 4609 313906 Zahartzaro aktibo eta osasungarria | 100.000 |
| 520001 51200 4609 313908 Eder partzuergoarekin hitzarmena | 35.000 |
| 547 LEHEN MAILAKO ARRETA | |
| 547001 Nafarroako Ipar eta Ekialdeko lehen mailako arretako osasun zentroak | |
| 547001 52300 4609 312200 Osasun zentroen funtzionamendurako | 991.820 |
| **7 LANDA GARAPENEKO ETA INGURUMENEKO DEPARTAMENTUA** | **2.682.679** |
| 710 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA BABESTEA ETA HOBETZEA | |
| 710004 Ekoizpena eta animalien osasuna | |
| 710004 71310 4609 412200 Abere azokak eta lehiaketak | 30.000 |
| 710004 71300 4609 412202 Toki entitateentzako laguntzak | 200.000 |
| 740 INGURUMENAREN KUDEAKETA | |
| 740001 Ekonomia zirkularra eta klima aldaketa | |
| 740001 74100 4609 456200 MRR Dirulaguntza Hondakinen araudia | 205.095 |
| 740001 74100 4609 456202 MITERD laguntzak, Ekonomia | 23.011 |
| 740001 74100 4609 456203 MITERD laguntzak, entitate | 36.895 |
| 740001 74100 4609 456205 Hondakinen Funtsa. Toki | 970.405 |
| 740001 74100 4609 456303 Toki entitateentzako dirulaguntza, | 155.000 |
| 740001 74100 4609 468100 Toki entitateentzako dirulaguntzak, | 110.000 |
| 740002 Basoko baliabideak eta baliabide zinegetikoak | |
| 740002 74200 4609 456307 Toki entitateentzako laguntzak | 100.000 |
| 740002 74200 4609 456308 FEADER 2014-2020 Landa | 222.273 |
| 740002 74200 4609 456309 Toki entitateentzako laguntzak | 40.000 |
| 740003 Bioaniztasuna | |
| 740003 74300 4609 456300 Toki entitateentzako kalte- | 70.000 |
| 740003 74300 4609 456302 Indemnizazioak toki entitateei | 40.000 |
| 740003 74300 4609 456303 Hitzarmena Lizasoko Kontzejuarekin | 40.000 |
| 740003 74300 4609 456304 Hitzarmena Urrotz eta Beintza- | 40.000 |
| 740003 74300 4609 456305 MRR C4. Biosferaren erreserba | 200.000 |
| 740003 74300 4609 456309 Toki entitateentzako laguntzak, | 200.000 |
| **8 GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRES. DEPARTAMENTUA** | **427.510** |
| 810 ENPRESA POLITIKA, NAZIOARTEKO PROIEKZIOA ETA LANA | |
| 810001 Lehiakortasuna | |
| 810001 81100 4609 422202 Lekunberriko Udala, Industria-plana | 17.500 |
| 810001 81100 4609 422203 Hitzarmena Baztango Udalarekin | 50.000 |
| 810007 Industriaren sustapena | |
| 810007 81200 4609 458100 Industrialdeen kudeaketa | 10 |
| 820 PROIEKTU ESTRAT. IND. ANTOLAKUNTZA S3 ETA ANTOLAK. ENERGETIKOA | |
| 820001 Trantsizio energetikoa | |

## **ERANSKINA:** 2022KO NAFARROAKO AURREKONTUETAN TOKI ENTITATEEI DAGOZKIEN AURREKONTU-LERROAK

### TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

| DEPARTAMENTUA/PROGRAMA/PROIEKTUA/PARTIDA | € |
|---|---|
| 830 MARKETING-A, TURISMOAREN, MERKATARITZAREN ETA KONTSUMOAREN | |
| 830001 Turismoaren eta merkataritzaren antolakuntza eta sustapena | |
| 830001 83100 4609 432100 Turismo arloko dirulaguntzak toki | 300.000 |
| 830001 83130 4609 432103 Nafarroako Ardoaren Bidea hitzarmena. | 20.000 |
| 830001 83130 4609 432104 Merkataritza arloko dirulaguntzak. Toki | 40.000 |
| **9 ESKUBIDE SOZIALETAKO DEPARTAMENTUA** | **34.598.239** |
| 900 ESKUBIDE SOZIALETAKO ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK | |
| 900000 Eskubide sozialetako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | |
| 900000 90000 4609 233100 Hitzarmenak toki entitateekin | 132.900 |
| 900003 Lehen mailako arreta eta gizarteratzea | |
| 900003 91600 4609 231500 Etxegabeentzako harrera zerbitzua | 165.000 |
| 900003 91600 4609 231502 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak | 21.000.000 |
| 900003 91600 4609 231602 Enplegu sozial babestua. PE EGIF | 5.255.593 |
| 900003 91600 4609 231603 Gizarteratzeko Plana abiarazteko | 150.000 |
| 900003 91600 4609 231604 REACT Enplegu sozial babestua. PE | 3.000.000 |
| 910 ERREALITATE SOZIALAREN BEHATOKIA ETA GIZARTE POLITIKEN | |
| 910002 Sustapen eta eraldaketa digitala | |
| 910002 92300 4609 233100 MRR Hitzarmena toki entitateekin | 188.250 |
| 910002 92300 4609 233102 Hitzarmena Izarbeibarko Gizarte | 15.000 |
| 910002 92300 4609 233102 Hitzarmena Barañaingo Udalarekin | 81.000 |
| 920 PERTSONEN AUTONOMIARAKO ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO | |
| 920005 Mendekotasunerako kudeaketa eta baliabideak | |
| 920005 93100 4609 231B00 Hitzarmena Leitzako Udalarekin | 25.496 |
| 920005 93100 4609 231B02 Toki entitateentzako dirulaguntza | 160.000 |
| 920005 93100 4609 231B11 Toki entitateentzako dirulaguntza | 200.000 |
| 920005 93100 4609 231B04 Hitzarmena Corellako Udalarekin nahi | 25.000 |
| 920006 Familiei zuzendutako politikak | |
| 920006 93300 4609 231500 Toki entitateentzako dirulaguntza | 200.000 |
| 950 ENPLEGUAREN, TREBAKUNTZAREN ETA BITARTEKARITZAREN SUSTAPENA | |
| 950001 Bitartekaritza eta enplegurako laguntzak | |
| 950001 96100 4609 241100 Toki entitateen kontratazioetarako | 4.000.000 |
| **A KULTURA ETA KIROL DEPARTAMENTUA** | **2.680.089** |
| A20 ONDAREA ETA KULTUR SUSTAPENA | |
| A20001 Ondare historikoa | |
| A20001 A2100 4609 337100 Toki entitateentzako laguntzak | 120.000 |
| A20002 Kultur ekintza | |

| DEPARTAMENTUA/PROGRAMA/PROIEKTUA/PARTIDA | € |
|---|---|
| A20002 A2500 4609 334100 Laguntzak udaletan kultur ekintzak | 1.261.764 |
| A20002 A2510 4609 334102 Dirulaguntzak Nafarroako Antzerki | 245.000 |
| A20002 A2530 4609 334104 Dirulaguntzak mugaz gaindiko kultur | 100.000 |
| A20002 A2500 4609 334105 Dirulaguntza EPEL Tudela-Cultura | 20.000 |
| A20002 A2500 4609 334106 GENERAZINEMA erakusketa: | 25.000 |
| A20002 A2500 4609 334107 MRR kultur eskaintza handitu eta | 362.325 |
| A20003 Museoak | |
| A20003 A2300 4609 333100 Hitzarmena Gustavo de Maeztu | 35.000 |
| A20003 A2300 4609 333102 Hitzarmena arte modernoko Muñoz | 25.000 |
| A50 KIROLAREN SUSTAPENA | |
| A50000 Nafarroako Kirol Institutuaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | |
| A50000 A5010 4609 336100 Tuterako Udalari transferitutako | 21.000 |
| A50001 Kirol azpiegiturak | |
| A50001 A5400 4609 336100 Toki entitateentzako dirulaguntza, | 20.000 |
| A50002 Kirol-jardunaren sustapena | |
| A50002 A5100 4609 336100 Toki entitateen kirol-jardueretarako | 435.000 |
| A50002 A5100 4609 336102 Prestakuntzarako dirulaguntzak udal | 10.000 |
| **B HERRITARREKIKO HARREMANETAKO DEPARTAMENTUA** | **925.000** |
| B20 BAKEA, ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK | |
| B20002 Elkarbizitzaren, biktimen eta giza eskubideen alorreko jarduketak | |
| B20002 B2100 4609 232503 Toki entitateentzako dirulaguntzak | 30.000 |
| B30 EUSKARABIDEA | |
| B30002 Euskararen sustapena eta plangintza | |
| B30002 B3200 4609 334100 Udal esparruan euskara garatzeko | 875.000 |
| B50 KANPO EKINTZA | |
| B50002 Kanpo lankidetza | |
| B50002 B5100 4609 144100 Toki entitateentzako laguntzak, mugaz | 20.000 |
| **F MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA** | **430.000** |
| F10 MIGRAZIO POLITIKAK | |
| F10002 Kulturen arteko elkarbizitza hobetzea | |
| F10002 F1200 4609 231900 Toki entitateetarako dirulaguntzak, | 140.000 |
| F20 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA | |
| F20001 Justizia administrazioaren funtzionamendua Nafarroan | |
| F20001 F2300 4609 112100 Transferentziak bake epaitegiei | 265.000 |
| F20000 F2100 4609 112200 Hitzarmena Zangozako Udalarekin | 25.000 |
| **GUZTIRA** | **97.335.317** |